



ARGIA

ALDAKETAREN **TRANPA**

Axier Lopez, Asier Blas
eta Ignacio Ramoneten analisiak

» ANTISORGAILU HORMONALEN ALBO-KALTEAK

» KOLONBIAKO GOBERNUAREN ETA ELN-REN ARTEKO ELKARRIZKETAK EZ DIRA ONGI HASI

» ISLANDIAKO KONSTITUZIO BERRIAREN ALDEKO BORROKA



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Arma atomikoen debekua aurten?

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 18 Joxe Iriarte 'Bikila'
- 19 Iñaki Barcena Miren Artetxe
- 20 Angel Erro



Masa turismoak eragiten dituen arazoak direla-eta, alternatibak aztertzen hasi dira Bartzelonan. (ARGAZKIA: FRANCESC MELCION / ARA)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: KATRÍN ODDSDÓTTIR
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 12 | Josu Aizpurua: "Eguren komandoetan gauzatutako ekintzek zaildu gintuzten" / Miel A. Elustondo
- 22 | Antisorgailu hormonalak: Askatzaileak bai, eta osasungarriak? / Malen Aldalur Azpillaga
- 27 | Donald Trumpen garaipena hobeto ulertzeko gakoak / Axier Lopez, Asier Blas, Ignacio Ramonet
- 31 | Gorputz ez aratuak / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 32 | Masa turismoari aurre egiteko ideiak Bartzelonatik / Lander Arretxea Bereziartua
- 34 | Kolonbiako Gobernuak lehen kolpea ELNri mahaian eseri aurretik / Lukas Barandiaran San Roman
- 36 | Udal euskaldunak: Lau medikutik bat ez da gai euskaraz egiteko / Onintza Irureta Azkune
- 43 | Erdi Arotik Errenazimentura: Gure literaturak behar zuen tornua / Mikel Asurmendi
- 46 | Charles Dickens bizirik balego, telebista gidoilaria izango litzateke / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibux Eizagirre.

Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibux Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

lota kUartElie tA
eRein pOrRuE



PANORAMA

Armak baino, porruek hazi

“Buruan gerra dutenentzat baino, kuartelaren lurrak erabilera sozialerako nahi ditugu: porruak ereiteko, hain zuzen”. Hala aldarrikatu dute hainbat talde antimilitaristek eta internazionalistek Mungiako Soietxe auzoan, Espainiako armadak duen kuartelaren aurrean. 27 urtez jarraian antolatu dute martxa umoretsua. Espainiako Estatua munduko zazpigarren arma esportatzailea izateaz gain, 16 gerratan parte hartzen ari dela gogorarazi dute eta beraz, horren eraginez, mundu mailako errefuxiatu krisiaren eragile zuzena ere badela. Egun, Espainiako 1.300 militar inguru dago Euskal Herrian, eta Europar Batasuneko lurralde militarizatuena bada ere, Arakako kuartelera 250 militar mugitzeko nahia azaldu du Espainiako Gobernuak.

Argazkia: Aritz Loiola



Memoriaren Egunaren harira, ika-mika



“Herri honetan ETak hil egin du (...), baina baita beste batzuek ere (...) tartean baita Ertzaintzak ere”

Arnaldo Otegi



“Otegiren hitzek iraintzen dute Ertzaintza, euskal gizarte osoa bere sufrimenduan, eta terrorismoaren eta gizarte honek biolentziaren biktimak guztien memoriarako elkarbizitza normalizatuaren alde eman dituen urratsak”

Iñigo Urkullu



“Ez diegu utziko biktimak batzuk gutxien dituen eta aitortzen ez dituen errelatua eraikitzen. Honen guztiaren atzean esango nuke dagoela EH Bilduren akordioak ez egiteko aitzakia eta PSerekin akordioa errazteko bidea”

Arnaldo Otegi



EFE

Iñigo Cabacasen familia, ikerketa ixtearen beldur

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Bizkaiko Auzitegian jarri zuten helegitearen erantzunaren zain daude Iñigo Cabacasen gurasoak, Gara egunkariak zabaldukoaren arabera. Errekurtsoa jarri zutela bost hilabete igaro direnean eta erantzunik jaso ez dutenez, beldur dira, instrukzioa ixteko aurrerapena izan daitekeelakoan. Hori salatzeko elkarretaratzea egin zuten azaroaren 7an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean.

Familiak eskatzen du ertzainak berriz deklaratzera deitzeko, agenteek publikoki adierazi ostean “nork gehiagok tiro egin zuen” badakitela. Ana Torres epaileak eskakizunoi ezezkoa eman eta gero, Bizkaiko Auzitegian errekurtsoa jarri zuten senideek.

Torres epaileak ekainean sei hilabeteko luzapena agindu zuen helegitea argitzeko. Luzapeneko sei hilabeteetatik bost igaro dira eta errekurtsoak ez du erantzunik jaso. Familiak salatu du denbora honetan ez dela ezer egin eta deia egin diete Justizia Administrazioari eta Eusko Jaurlaritzari, “beste era bateko interesak albo batera utzi eta justizia egiteko”. Aitaren hitzetan, “ez dugu ulertzen XXI. mendean poliziak Athleticek partidu batean pertsona bat hil eta nola ez den ikertu nahi”.

Helegitearen ezeztapenak ez luke derrigorrean kasuaren itxiera ekarriko, hainbat inputaturen aurka dauden frogekin epaiketara joateko aukera baitago, baina familiaren iritziz, poliziak berriro ere deklaratzeko froga oso garrantzitsua da.

“Aroztegiaren afera desitxuratu eta nire obsesio pertsonala balitz bezala aurkeztu nahi dute”

GARBIÑE ELIZEGI, BAZTANGO ALKATE OHIA

Elizegi epaitzen ari dira, “pelotazo urbanistikoa” hitzak erabiliz Lekarozko proiektu atzean dagoen enpresaren ohorea iraintzea egotzita. Proiektuari lotutako beste bi auzitan ere badago: “Enpresaren estrategia da auzi hau pertsonalizatzea. Herritarrak proiektuaren aurka daude, baina nire obsesio pertsonala balitz bezala aurkeztu nahi dute. Adierazpen askatasunaren aurkako eraso da eta ez gara ixilduko. Eztabaida politiko-soziala galdu dutela ikusita, botere erakustaldia egiten dute”. **2016-11-04 (XORROXIN IRRATIA)**



L

E

H

E

N

< Trantsizioaren hasieran
%50ek zuten **KATALANA**
Lehen Hizkuntza

Oraingo egunean
%36 da zifra

14 puntu egin dugu gibelera
40 urtean; eta anitz da

G

O

A

i

A

zulu Hizkuntzaaren Gainean
ariko bagina, desagertze-
prozesuaz ariko ginateke

carme junent

Herri euskaldunenetan
1986an %69ek zuten
Euskara Lehen hizkuntza

Oraingo egunean
%58 da zifra

11 puntu egin dugu atzera
30 urtean; eta asko da

Herri erdaldunagoetan ere behera egin du euskara Lehen hizkuntza gisa
eta INSTITUZIORIK GABE, FRANTZIAPEAN
1991an populazioaren %29 euskalduna zen
2011an %21 !
2016ko datuen beha

Zulueraren AGONIA POSITIBATU ASMOTZ
BANTUSTAN AUTONOMOKO FUNTZIONARIEK
HEGAZTI SINPATIKOA HARTU DUTE LOGO





ELA

Hezkuntza publikoko garbitzaileak greban

Argia

@argia

EHUko eta irakaskuntza publikoko zentroetako garbitzaileek greba egin dute bost egunez. Sindikatu deitzaileen lehen adierazpenen arabera, arrakastatsua izan da deialdia.

ELA, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuek deitu dute greba. 2014an iraungi zen sektoreko lan hitzarmena eta harezkeroztik berriro gabe dago, negoziazioak orain urte eta erdi hasi ziren arren. Sindikatuen ustez, patronaleko enpresek (Garbialdi, Uni2 eta Villar) blokeatuta dute prozesua.

Soldatak %2,5 igotzea eskatu dute, "2010etik izoztuta" baitituzte. Halaber, sektorean kontratu partzial gehiegi dagoela salatu dute; baldintza horietan ari dira langileen erdia baino gehiago. Hirugarrenik, udako hilabeteetan, ikas-tetxeak itxita daudenean, langileak langabeziara bidatzen dituztela adierazi dute, eta horrek haien diru-sarrerak gutxitzea dakarrela. Baldintza horiek bere horretan mantendu nahi ditu patronalak, CCOOk kritikatu duenez.

Sindikatuetako iturrien arabera, enpresek soldata igotzeko baldintzatzen ipini dute baja kopurua gutxitzea, "baina hain zuzen eurak ari dira langileen osasuna kaskartzen, lan kopurua handituz". Besteak beste, ordezkapenik ez

dutela egiten eta denbora berean lan gehiago agintzen dutela salatu dute sindikatuek.

Boikota egin diote EHUko errektoregaiari

Bestalde, Nekane Balluerka, EHUko errektoretza hauteskundeetarako hautagaia, Gasteizko Campusean izan da bisitan, eta hori aprobetxatuta ikasleek elkarretaratzea egin dute aularioaren aurrean, "Ez da errektore hau edo bestea, unibertsitate eredu hau edo bestea da" lelopean. Boikotaren ondorioz, errektoregaiak ez du barrura sartzea lortu, protesta egin dutenek bidea oztopatu diotelako. "EHUk irudikatzen duen antzerkiarekin" ez dutela bat egiten adierazi dute ikasleek. EHUk berriz, gertakaria "gaitzetsi" eta azaldu du "eztabaida publikoa eta ideien adierazpena" galarazten dituzten jarrerak salatzen dituela.



HARA BA

EKONOMIAREN TALAIAN

Euskal neoliberalismoa



Juan Mari Arregi

ELAko idazkari Adolfo Muñoz Txikik euskal neoliberalismoaren zauria ukitu du eta erreakzio gogorra eragin, batez ere EAEko eta Nafarroako gobernuetan neoliberalismo hori ordezkatzeko dutenen artean, baita haiek sostengatzen dituzten ezkerreko alderdien artean ere. Muñozek arrazoi du esaten duenean administrazio biek euren politikak oinarritzen dituztela zerga erreforma injustu batean, patronalen ikuspegitik ari direla eta oposizioak ez duela oraindik alternatiba errealek eskaini. Arrazoi du Muñozek *thatcheriar* estiloko politika antisindikala darमतela dienean, patronalak nahi duen "diziplina eta bake sozialaren" alde eginez. Eta arrazoi osoa du bere buruari galdetzen dienean nola eraman ote daitezkeen aurrera politika sozialak Europako presio fiskal baxuena edukita, kapitalaren, errenta altuen eta enpresa etekinen mesedetan.

Muñozek ezkerreko alderdiei begiratu die. Ezin dira politika neoliberalak eta kapitalistak bultzatzen dituztenak babestu, eta bi erkidegoetako administrazioak horretan ari dira. Ekintza ildo bateratuak bilatu behar dira sindikatu abertzaleen eta mugimendu sozial eraldatzaileen artean. Neoliberalismoari aurre egiteko alternatibak bilatu behar dira, zerga erreforma eta aberastasunaren banaketa bidezkoak lortzeko.

EAJk izandako erreakzioak – Muñozen sindikatua alderdi politikoa dela esanez, eta sindikatu baten zereginera muga dadila eskatuz –, oso ondo islatzen du haien aurpegia. Herritar orok, eta edozein sindikatu edo mugimendu sozialek, eskubidea dute gobernuen jarduna kritikatzeko. Jarrera egokiena, egindako akatsak onartu eta neoliberalismoa atzean uztea litzateke, gizarte justuago, berdinoago eta solidarioago baterantz eginez.



BIZILAGUNAK

Bazkariak bizikidetzarako elkargune

EUSKAL HERRIA. Bosgarren urtez, Bizilagunak ekimena egin dute Euskal Herriko hainbat herritan, SOS Arrazakeriaren eskutik. Bi familia (edo talde) elkartu dira bazkaltzeko, bata bertan jaioa eta bestea jatorri atzerritarrekoa. Euren arteko ezagutza sustatzea eta bizikidetza baldintzatu dezaketen aurreiritziak gainditzea izan da helburua. Gizarte eraldaketarako tresna izan nahi du egitasmoak, ezagutza eta harreman berriak errazten dituela eta aniztasunaren aldeko jarrera duen gizarte bultzatzen duela ulertuta. Argazkian, Ordiziako eta Nepaetik etorritako familiak elkarrekin.

64 urteko kartzela zigorra eskatu dute Aristrainentzat

Argia

@argia

ArcelorMittal-en jabe nagusietakoa den Olaberriako Jose Maria Aristrain enpresaburuak Espainiako Ogasunean 211 milioi euroko iruzur fiskala egin zuen 2005etik 2009ra, *Castellanako Paperetan* ageri denez.

Ezkutuko sozietateak

Hainbat hedabidek zabaldutako filtrazioari esker jakin zen ArcelorMittal-etik lortzen zituen dibiden-duengatik ez zuela ezer ordaindu urte horietan, eta Herbeheretako, Suitzako eta Luxenburgeko ezkutuko sozietateak ere erabili zituela.

1.190 milioi

Madrilgo fiskaltzak eskatu du 64 urteko kartzela zigorra, 1.190 milioi euroko isuna, eta 211 milioiak bueltatzeko. Ezkutuko sozietateen bidez, esaterako, etxebizitzak, yatea eta luxuzko autoen kolektzioa mantentzen zituen, ezer deklaratu gabe.

Aberatsa

Aristrain munduko aberatsenen zerrendan ageri da, Olaberriako altzairu fabrikari esker egindako fortuna dela-eta. ArcelorMittalen %2aren jabe da, Zumarraga eta Sestaon ehunka langile kalean utzi dituen enpresarena.

PRESOAK



30

egunez itxialdia egingo dute Usurbilen, euskal preso politikoen alde. Hamabost preso ohi inguruz osaturiko iniziatiba berri honek beste ekintza batzuk ere antolatu ditu, kartzelak husteko pizgarri izan asmoz.

358

dira espetxeetan dauden euskal preso politikoak.



BAKEA KOLONBIAN

Bake akordio berria sinatu zuten Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EP gerrillak azaroaren 12an La Habanan. Erreferendumean ezezkoaren alde egin zuten herritarren proposamenak entzun eta hainbat aldaketa egin dituzte.



ERRAUSTEGIARI EZEZKOA ITALIAN

Florentzian laster eraikitzen hasi behar zuten erraustegiaren baimenak baliogabetu ditu auzitegiak, urrats administratiboak zuzen egin ez direlakoan. Garaipen handitzat hartu du Mamme No Inceneritore taldeak.



KORRIKA 20

Martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean antolatuta du aurtengo Korrika AEK-k, Otxandiotik Iruñera bidea eginez. Batzuk izango da 20. edizioko leloa. Kultura, hizkuntza eta mundu ezberdinek osatzen duten aniztasuna irudikatu nahi dituzte leloarekin.

2017a izan liteke (edo ez) NBEk arma atomikoak debekatuko dituen urtea



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Abendu honetan erabaki historikoa har dezake Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak: berresten badu Armagabetze eta Segurtasun batzordeak urriaren 27an gehiengoz onartutakoa, 2017an hasiko dira negoziatzen mundu osoan arma atomikoak debekatzeko ituna. Kontra bozkatu duten potentziek –euskaldunok ordezkatzan gaituzten Espainiak eta Frantziak barne– lortuko ote dute zapuztea?



Frantziako legebiltzarreko 82 diputatu eta 19 senatarik sinatu dute –orain artean– arma atomikoen debekua herriarren iritzia erreferendum bidez galdetzeko eskaria. Erreferenduma gauzatu dadin 185 diputatu eta senatariren sinadura bildu beharko dituzte 2017ko uda aurretik. Ekimenarekin behartu nahi dute Frantziako estatuak Nazio Batuen Erakundean arma atomikoen alde beti ematen duen botoa.

Urte luzetako lanen ostean, urriaren 27an NBEren Armagabetze eta Segurtasun batzordeak bozkatu zuenean gerra nuklearraren debekua itun bihurtzea, 123 estatuk eman zuten baietza eta ezezkoan tematu ziren potentzia nuklearrak. Tartean, bonba atomikoa aspalditik daukan Frantziak eta NATOen kide izateagatik arma nuklearren erabileran esku hartzen duen Espainiak, NBEan euskaldunak ere ordezkatzan dituztenak.

Hedabide nagusietan oraingoan kasik aipatu ez den arren, abenduan eztabaidak ikuskizun handiagoa piztuko du. NBEren Batzar Nagusian bozkatu da orain gaia eta proposamena onartuz gero 2017ko udaberrian hasiko dira itun berriaren negoziaketak. Xehetasun garrantzitsua: Segurtasun Batzordean gertatzen denaren oso bestela, Batzar Nagusian potentzia handiek ez daukate beto eskubiderik. Bai daukate, prefosta, herrialde ahulagoak presionatzeko bestelako tresna ugari.

1968an onartutako Ez Ugaritze Itunaren gainean (NPT *Non-Proliferation Treaty*) oinarrituta, orain mahai gainean jarri da lehenbiziko aldiz gaiari bere osotasunean heltzeko eztabaida, esan nahi baita, arma nuklearrak erabili, kokatu, ekoiztu, garraiatu, pilatu eta finantzatzeko jarduerak oro debekatzea.

NPTk armak ez ugaltzea baldin bazuen helburu, 1968ko hura paper hutsen utzi dute horretarako gai izan diren herrialdeek. Famatua da Israelen kasua, mundu guztiak daki ia zientia bat buru nuklearren jabe dela, lasai ederrean NPTri izkin eginez, baina gainera NPT sinatu zutenek ere jarraitu dute arma berriak ekoizten eta zaharrak eten gabe modernizatzen. Itun berria egia bihurtzen baldin bada, bai NPT sinatu dutenak eta bai sinatu ez dutenak, denek edukiko dute ez bakarrik arma berriak sortzeko debekua baizik eta dauzkatena desegiteko behar legal argia.

Urriko bozketa historikora iristeko sei urtez lana beltz egin behar izan dute mugimendu bakezaleek eta gerra atomikoaren kontra mobilizatzen diren militante eta pertsonalitate ezagunak. Rebecca Johnson ekintzaile pazifista eta berdeak *Open Democracy* gunean azaldu duenez, 98 herrialdeko 440 gizarte erakunde aritu dira gaia astintzen ICAN Arma Nuklearrak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainarekin batean, 15 Nobel saridunek sustatuta.

Horiek lortu dute asmoarekin bat egin dute arma nuklearrik ez daukaten zen-

bait estatuk: Austria, Brasil, Irlanda, Mexiko, Nigeria eta Hegoafrikak sustatu dute NBEren batzordearen erabakia, 57 gehiagoren babesez. 38 herrialdek eman zuten kontrako botoa eta 16 gehiago abstenitu ziren.

Bozketaren aurreko asteetan Norvegia, Herbehereetako eta Belgikako parlamentuek beren gobernuei eskatu zieten negoziaketan aurka ez jokatzeari, baina soilik herbehereetarrek lortu zuten beren gobernuak gutxienez abstenitzea. Europako Legebiltzarrean ere negoziaketan aldeko botoak irabazi zuen, baina NATOeko gobernuek kontrako botoa eman zuten blokean. Ez da albiste handirik iritsi Iruñea, Gasteiz eta Madrilgo parlamentuetatik.

Apokalipsi nuklearra saihestu

“Arma nuklearrak debekatu eta desegitea mundu mailako lehentasunetako bat da. NBEren batzar nagusiak gu horretara hurbiltzeko aukera handia dauka eta ez digu huts egin behar”. Horrela idatzi dute tribuna publiko batean Gerra Nuklearra Ekiditeko Nazioarteko Medikuek, Medikuen Munduko Elkarteak, Erizainen Nazioarteko Kontseiluak eta Osasun Publikoako Elkarteen Munduko Federazioko ordezkari nagusiak.

Agirian irakur daiteke: “Arma atomikoek dakartzaten arriskuak onartezinak dira, pentsaezinezko katastrofe bat saihesteko modu ziur bakarra da armok osoki desegitea. Arma nuklear bakar batek suntsitu dezake hiri oso bat bere



ICAN erakundeak zabalduko argazkian, Hiroshimako superbibienteak Nazio Batuen Erakundearen New Yorkeko egoitzaren aurrean joan den urriaren 21ean. Banderolak dio ingelesez eta japonieraz: "Arma nuklearrak debekatu oraintxe!". ICANen kontuetan, 15.350 bonba atomiko dauzkate gaur bederatzietan artean, 6.970 AEBek, 7.300 Errusiak eta gainerakoak Britainia Handia, Frantzia, Txina, India, Pakistan, Israel eta Ipar Koreak.

biztanle gehienak hil eta bizirik aterakoei laguntzea ezinezko eginez. Gerra nuklear batek ordu bakar batean jende gehiago hil lezake II. Mundu Gerra osoan hil zutena baino".

Aldituok oroitarazi dute hirietan lehertuz gero, bonba nuklearrak sekulako suteak eragingo lituzketela, luzaz iraungo luketen ingurumen kalte estremoekin, Lurreko klima eta nekazaritzaren emankortasuna hondatuz. Gaur munduak dauzkan arma atomikoen %1 bakarria leherrarazteak 2.000 milioi pertsona utziko lituzke gosetearen mende.

Potentzia handiek 15.000 arma nuklear baino gehiago dauzkaten pilaturik, horiek gerra batean Lurra *negu nuklearrean* murgilduko lukete, bizirautea lortutako herritarrak utziz irradiazioek eragindako belaunaldiz belaunaldi lu-

zatuko diren kalteen mende, gerra ostean giza bizitza berreraikitzeaz aspigiturak oro suntsituz, ekosistema osoak mehatxatuz eta gizadia amaitze arriskuan jarritz.

Gerra nuklearren irudi apokaliptikook egia da ez direla asko aipatzen aspaldian. Eta hala ere, gaur askoz ugariago eta bortitza goak dira potentzia handiek dauzkaten arma atomikoak NPT Ez Ugaritze Ituna sinatu zen 1968 hartan zeuzkatenak baino. Arma kimiko eta biologikoak debekatu badira, zendako ez nuklearrak?

Bonba atomikoen jabe diren bederatzietan estatuek gain, beren aliatuek ere debeku proposamenaren kontra bozkatu dute. Errusiak eta NATOk potentzia nagusiek esan zuten proposamenak alderantzizko eragina ekarriko lukeela, armen ez ugaltzeko ituna ahultzea.

Kontrakoen artean asko aipatu da Australiako gobernu eskuindarrak ezezkoak biltzen egindako azpi-lana. Bere argudioa, proposamena ez dutenez on-tzat hartzen benetan bonbak dauzkaten estatuek, hori aldatu artean australiarrek behar duela AEBetako arma nuklearren babesa.

Errusia, AEBak, Txina, Israel, Erre-suma Batua, Frantzia... urteotan saiatu dira lehenbizi debeku proposamenei ezikusia egiten eta gero urrats guztiak boikotatzen. Zer egingo ote dute 2017an debekua lege bihurtzeko kinkan? Ñabardura bezala, eskandalu handiz kontrako botoa eman duen Japoniak -atomoaren sua Hiroshima eta Nagasaki nozitu zuenak- gutxienez agindu du NBERen Batzar Nagusiak azkenean proposamena onartzen badu, berak ere parte hartuko duela negoziaketetan. ■



zuri begira



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Josu Aizpurua, EGIko kide ohia

«EGIren komandoetan gauzatutako ekintzek zaildu gintuzten»

60ko hamarkadan Bizkaiko erresistentziaren zurrunbiloaren begian zen. Alderdi jeltzalearen EGI gazte mugimenduaren baitan eratu ziren taldeak ibili zituen, komando bereziak. Tenerifen (Kanariar Uharteak) argitaratu berri duen lanean gordin kontatu ditu orduko amets zapuztuak.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Zure gaixotasunak azti ibiltzera behartu nau...

Hobeko duzu! 70 urte beterik, Kariben ordurako, medikuak jakinarazi zidan aortan aneurisma bat nuela, eta ez txiki-txikia ere. Ebakuntza agintzen zidan, protesia jartzea, ez zedin aorta lehertu. Hamabi hilabeteen berrosatuko nintzela eta, harrezkero, beste hamabost urte biziko nintzela. Gaizkixela! Kontua da, ordea, polineuropatia diabetikoa ere badudala, genetikoa, eta horrek paralisira naramala poliki-poliki. Nola egingo dut, bada, bihotzeko ebakuntza, gero hamabost urte gurpil-aulkiari lotuta egoteko? Ezta pentsatu ere! Ibiltari porrokatua naiz, bizigarri dut oinez ibiltzea, tentsioak lasaitzen dizkit, ideiak ordenatzen laguntzen dit, egitekoak aukeratzen. Hil arte bizi, beraz.

Bilbon jaioa 1946an, gerra ostea.

Gerra ostea Bilbon... Frankismoa, faxismoa, errepresioa, giro atzerakoia. Oso oroitzapen mingotsa dut garai hartakoa. Errepublikak ekarri zuen askatasun haizea Francoren Erregimenak eraman zuen, odoletan. Espainia garaile, Euskadi garaitua, eta horren ondorio dramatikoa. Gure ama, esaterako, gerra-

ko umeetakoa izan zen. Nora edo nora Frantziara joan behar izan zuen, senide txikiagoak zaintzen zituela. Erbestetik itzuli, ileapaindegian lanean hasi eta, etxetik hara eta handik etxera, igeltsero bat ezagutu zuen, gure aita izango zena.

“Beste zer esanik ez da, esatean ama”, Uztapide bertsolariak kantatu zuena.

Ez alferrik. Eskolara hasi behar izan nuenean, amak nik baino okerrago eraman zuen: goizeko bederatzieta eskolara sartu nintzenetik ordu batean irten nintzen arte, eskolako atarian nire zain egon zen. Irten nintzenean, berriz, urtebeteen ikusi ez banindu bezala besarkatu ninduen. Eta ez ninduen atzera eskolara bidali. Andereño bat, “andereño Enkarne”, ekarri zidan etxera, Indautxuko jesuiten ikastetxera sarrera-froga gaitzitzeko presta nintzan.

Bilboko kale-giroa zen bat, zure baitakoa beste bat.

Nik esan ohi dudanez, zirkunstantziek –Ortegaren haiek, “ni eta nire zirkunstantziak”–, egin ninduten. Inork ez zuen neurritz gain eragin niregan, inork ez ninduen behartu halako bide bat edo beste bat hartzera. Prozesu naturala

izan zen, intelektuala bezain sentimentala. Francoren Erregimena jasanezina zitzaidan eta, astiro-astiro, haren kontra egin nuen, nire burua klandestinitatean ikusi nuen arte.

Josu Aizpurua San Nicolas Istiña

1946, Bilbo

EGIko kide, erresistentzian buru-belarri jarduna frankismo garaian. ANVko idazkari nagusi zen 1977an eta HBko parlamentarioa Gasteizko lehen legebiltzarrean. Politikaren lehenengo lerroan ibilia, 1982an politika aktiboa utzi zuen. Hainbat lan ditu idatzia, argitaratuak batzuk, argitaratu zain bestetuk. Kaleratu berria du *Ilusiones truncadas* (Escritura entre las nubes argitaletxea, 2016), erresistentzia garaia ardatz duen liburu autobiografikoa. Guztiz kritikatzeko du 78az geroko euskal politika, EAJ, ETA nahiz HB. Euskal Herriatik urrun bizi dugu, baina hor da beti beraren bloga.



Entzuna dizut anekdota jakin bat.

Hor dut beti ditzosozko gertaera. Etxera nindoan lagun batekin batera trolebusean, eta jakako paparrean Biarritzeko Oldarra dantza taldearen ikurra neraman: dantzari bat ageri zen, zuriz, hondoaren gainean, partez berde, partez gorri. Trolebus berean sekreta bi, nonbait, Alhondiga parean gidariari geratzeko agindu zioten-eta, behintzat. Udaltzaingoaren egoitzara sartu eta, udaltzainei txintik esateke, gela batera eraman ninduten. Lau galdera ergel egin zizkidaten eta, segidan, joka eraso zidaten: egurra eman zidaten, lixiba, oso modu “profesionalean”, arrasto nabarmenik uzteke. Hamahiru urte izango nituen, eta hasieran, negarrari eman nion, izu-ikaratan. Baina, bat-batean, barruko amorrazio guztia etorri zitzaidan, eta egurrari eutsi nion, estoiko. Gero, gure aitari hots egin zioten, ez dakit zer esan zioten, baina aitak auto bat bidali zuen, jaso ninduen, eta kito. Inoiz ez zuen ezer esan. Amari, berriz, kalean borrokan ibili nintzela esan zioten. Nire lagun hark ere inoiz ez zuen ezer esan. Koldarra behar du, gero!

Latza...

Ikaskizuna atera nuen: azti izan behar dela ikasi nuen, ez duela merezi pankarta erakusten ibiltzeak, alferrikako alardeak uzten.

Zeure sentipenak ere modu klandestinoan bizitzen, gero egingo zenuenez.

Baliteke, nahiz eta Euzko Gaztedin ez ginen ezer ezkutatzeko ibiltzen. Mendira hasi nintzen lagunekin, han beste lagun batzuk egin nituen, eta haien artean Euzko Gaztedikoak ziren batzuk. Laster konturatu ziren zer joera nuen, eta Uralita [Iñaki Renteria] aurkeztu zidaten,

Nazional katolizismoa

“Amaren eskutik helduta joaten nintzen hornigaiak hartzera, errazionamendu-liburutxoa hartuta, eta ama gogo txarrez joaten zela ikusten nuen. Amak gorroto zituen *fatxiak* –horrela deitzen zituen berak, *fatxiak*–, apaizak bezainbat. Apaizek, esaterako, irabazleen dotrina zerabilten, aste santu latzak egiten zituzten, musika iluna jarrarazten zuten irratan, elizatik elizara ibil gintezen presioa egiten zuten, igandeko mezatan ‘Estatuko buru Frantzisko’-ren alde errezatzen behartzen gintuzten... Haurtzaroko nazional katolizismo hura filofaxista hutsa zen”.

Enkarne andereñoa

“Errepublikara garaiko irakaslea zen, sano abertzalea, totala. Emakume Batzako izandakoa. Atxilotu zuten, torturatu eta erbesteratu. Amnistiari zutenean ere irakasteko baimena ukatu zioten, eta bataren eta bestearen etxean eskolak emanez irabazi zuen ogia. Berak eman zizkidan euskal kausaren eta Bilboko faxismoaren gaineko lehen azalpenak. Orduantxe ulertu nuen batzuk ‘gu’ ginela eta bestetzuk, aldiz, ‘haiak’”.

Euzko Gaztediko buruetakoa sasoian, eta hark euren erakundean sartzeko esango zidan. Mendi ibilaldiak egiten genituen, baina ez noranahi, gerra garai-ko leku esanguratsuetara baino, Bilboko Burdinazko Gerrikora nahiz Arabako fronteko lekuetara... Eta beti zen baten bat hitzaldia egiten –Txomin Saratxaga bat, adibidez–, PNVren bertsioa kontatzen. Ondoren, EGIIn sartu nintzen. Ez ginen asko ere. Gure taldean lau ginen: Mikel, Jon, Zezilio eta lauok, eta bosgarrena, Koldo bat, buru. Bizkaian beste hiru talde osatu ziren, eta Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan bana.

Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi, 1969an hilak, EGIkoak ziren?

Nafarroako taldekoak. Batzarrak egiten genituen ezkutuan, ikastaroak, entrenamenduak... Eta, nola ez dakidala, egun batean –iluntzez–, horma pintaketan ikusten dut neure burua, beste hiru lagunekin batera –eta isipua eta pertza–, inork agindutako kontsignak ipintzen. Horrelaxe hasi ginen Francoren kontrako erresistentzia militarrean. Kasik hamar urte ibili ginen horrela, erbesteko Eusko Jaurlaritzak babestuta beti: ikurrinari zina eginez hasi ginen mendian 1962an, Euzko Gudarosteko komandantearen aurrean, eta azkenean, EGIn komando berezietan ibili gintuzun kasik hamar urtez.

EGIn komando berezietan? Zer izan ziren komando berezi horiek?

Gazteak –langileak batzuk, ikasleak beste batzuk–, EGIkoak, prestakuntza ikastaroak egindako jendea, “militarrak”, Joseba Emaldiren gidaritzapean. Itaunketa praktikak egiten genituenean, adibidez, zera esaten ikasi genuen: “eusko

ZURE ETXERA ETA BIZKOR!

denda.karrikiri.eus

KARRIKIRI.eus
IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNA

KARRIKIRI euskal denda. Xabier karrika 4. Iruñea

50€-tik gorako eskaerarekin opari hau zure etxean!



“Erbesteko Eusko Jaurlaritzak urratsak egin nahi zituen demokraziaren bidean, eta guk berriz, hogeituro urteko gazteok, ez genuen estrategia politiko hura ulertzen”.

gudaria naiz eta Ginebrako III. Hitzar-menari heltzen diot”. Baina errazago da esaten, parean daukazu poliziak horri kasu egitea baino. Bazen bat, Escobar izeneko polizia bat, sekulako garrotea erabiltzen zuena. Hark ez zizun barkatzen: “Hemen garrote haxe da Ginebrako III. Hitzarmena!”.

Zein ekintza egiten zenituzten?

Guk esaten genuen “defentsako erresistentzia” egiten genuela. Komando-kideen diziplina erabatekoa zen, militarra. Biolentzia erabiltzen genuenean ere –polizien eta parapolizien kontra–, defenditze aldera zen. Eta monumentu faxistak zartarazten genituenean ere, beti zen komandokideren bat zaintzan, zauriturik gerta ez zedin. Gainerakoan,

betikoak, pintaketak egiten genituen, ikurrinak ipintzen, monumentuak zartarazten... Hamaika holako. Urte osoan zehar jarduten genuen borrokan, baina Aberri Egunaren aurreko egunetan areagotu egiten genuen gure lana.

Poliziak ere zaintza indartuko zuen, ezta?

Bai, nahiz eta hasieran Brigada Politiko Soziala ez jabetu gure lanak zuen garrantziaz. Egia esan, baldarrak ziren lanean. Ez zekiten polizia kalera ateratzen besterik, ea harrapatzen ote gintuzten. Egun handien bezperan han ibiltzen ginen, katua eta xagua bezala. Falangista zaharrak ere poliziarekin bat eginda ibiltzen ziren, eta inoiz hormak pintatzen harrapatzen bagintuzten, autotik tiroka erasotzen ziguten. Guk airean joan behar

izaten genuen. Gurekin baino lan handiagoak izan zituzten ETako gazteekin, zeren hauek pistolak baitzituzten, eta erantzun egiten zieten. Orduan, falangista zaharrok ezkutatu eta bestelako polizia bat, buruargiagoa, etorri zen.

Zer etorri zen gero? Artajo eta Asurmendi hil eta gero, adibidez.


Komandoen artean espero zen noiz edo noiz horrelakorik gertatzea, baina erbesteko Jaurlaritzan gorabeherak izan ziren. Epelenek komandoetako ardura-dunen kontra ekin zioten, EGItik kanporatzea eskatzen zuten, babesa erretiratzea. Komandoetako kideok, berriz, Artajo eta Asurmendi heriotzara eramane zituen plana bururaino eraman nahi genuen.

Zein plan?

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetakoa monumentu faxista bana zartatzea, eta Valladolideko egunkari baten kontrako atentatua egitea, euskaldunen kontrako eraso xenofoboak besterik ez baitzetozen egunkari hartatik. Gazteek ekin nahi zioten. Arduradun politikoei, ez. Bitartean, ETakoak gure egonezaz konturatu ziren, eta euren errotara eraman zituzten urak. EGIren komando bereziak kideetako askok beraiekin bat egin zuten. Tarte batean, inork ez zekien EGIkoa zen, ETakoa, edo nongoa. Sekulako porrusalda izan zen. Erbesteko Eusko Jaurilaritzak urratsak egin nahi zituen demokraziaren bidean, nazioarteko politikan murgilduta zebilen gobernuak, eta guk berriz, hogeitaz urteko gazteok, ez genuen estrategia politiko hura ulertzen. Bakanak ginen hasieran, baina ehun izatera ere iritsi ginen, ekintzak egiteko gaitasuna genuen, baita gogoia ere, eta aldiz, geldirik egoteko esaten ziguten. Jakina, batzuk ez ziren geratu, beste bide batzuetatik segitu zuten, ETara jo zuten.

Zer egin zenuen zuk?

Lehenengo, Ipar Euskal Herrira joateko agindu zidaten, soldadutzara ez joateko. Gero, bestelako agindua eman zidaten, soldadutzara joateko, baina egiteko garbi batekin: zelulak sortzea, materiala lapurtzea eta defentsa-eskuliburuak egitea. Nahiago nukeen Iparraldera joan, baina aginduak bete eta Arakara. Armadako Inteligentzia Zerbitzukoek zaintzapean eduki ninduten, baina nik zozo itxurak egiten nituen: tiro praktikak egitera joaten ginenean, inoiz ez nuen nire jomugan jotzen. Kar, kar... Aginduak bete nituen, materiala lapurtu eta beste, bai-



Azken hitza: Euzkadi azkatuta

"60ko hamarkadaren hasieran *Gora Euzkadi Azkatuta* ipintzen genuen hormetan. Eta, guretzat, horrek independentzia esan nahi zuen, ez oraingo autonomia. Haren alde saiatu ginen eta eskaini genuen bizia. Inork ez zuen ohore ez kargurik eskatu. Komando bereziakook bakarrik utzi gintuztenean, nork bere modura egin zion aurre bakardadeari. Bi lagunek bere buruaz beste egin zuten. Beste batzuek psikologoaren laguntza behar izan zuten. Lehenago, Artajo eta Asurmendi hilak zitzaizkigun. Orain utzi gu bakean!"

na inork ez zuen jasotzen nik lapurtutakoa, bitartekariak huts egiten zuten. Susmo txarra hartu nion gauzari, eta egia, soldadutzatik itzuli nintzenean, ezer ez, komando bereziak deseginak zituzten. Eta inork ez zidan azalpenik eman.

Garai iluna ekarri duzu argitara oraindik orain, *Ilusiones truncadas* [Amets zapuztuak] liburua publikaturik.

ngi pentsatuta egin dut, ondorioen jakinaren gainean. Nik ez nuen nahi gazteek euren historia jakitea besterik. Iragana giltza da: nora goazen jakiteko, jakin behar dugu nondik gatozen. Gauzak argitara ekarri behar dira, 36ko gerra zergatik piztu zuten, Bigarren Mundu Gerra, aliatuek egin ziguten abandonoa, erresistentzia, Trantsiziorako bidea... Orduko agintariei bide jakin batzuk hartu zituzten. Alabaina, sekula ez da behar bezala azaldu zergatik hartu zituzten erabaki jakin haiek, eta ez bestelakoak. Jende gehiegi hil zen, eta hil zuten, ametszko Euzkadi baten alde, eta batzuetan iruditzen zait botoak biltzeko erabiltzen dela hildako haien memoria.

Noizdanik pentsatzen duzu hori?

80ko hamarkadan. Laguna nuen Espainiako armadako abokatu bat. Behin, kontatu zidan Alkateen Mugimenduari garaian [1976], alkate abertzale bat izan zuela bulegoan, eta taldearen ize-nean zinez agindu ziola inoiz ez zutela independentziaren alde egingo. Geroago, jarrera hura nik neuk egiaztatu ahal izan nuen, eta hori guztiz erabakigarria gertatu zitzaidan.

Zer diozu gaur egun, orduko hartaz?

Berriz egingo nuke. Faxismoaren kontrako erresistentziarekin bat egitea erabaki nuen, neure gogoz, eta pozik nago urteek arrazoia eman digutelako... Gazteak ginen, besteak bezalakoxeak, baina denboraren joanak eta EGIren komandoetan gauzatutako ekintzek zaildu gintuzten. 70eko hamarkadaren hasiera orduko, gure gaitasuna ez zen txikia ere. ■

LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.

SOINU PROFESIONALA
MEGAFONIA

Tel. / Faxe 945 226 977
txala@txala.euskalnet.net
01012 GASTEIZ

MARCOS
okindegia

Benetako
aitzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

www.eskulanen-etxea.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205

Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitzen du

Jdanik ohituta gaude noizbehin-ka pentsioen gaia ezbaian jartzen. Orain, pentsioen Erreserba Funtse nahiko oparoa izatetik, 70.000 milioi euro, ezerezean geratzear dago eta hortik kezka azaltzea.

Espainiako Gobernuak epe motzeko kontuak biribiltzen zituen, ez ordea epe ertain eta luzekoak. Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitu du eta bien bitartean sarrerak, landunek Gizarte Segurantzari ordaindutako kopuruak ez die jarraitzen gastuei. Hortik etengabe Erreserba Funtse heldu beharra.

Gaur egunera arte gastuak murriztu dira: jubilatu bakoitzak eskuratu behar duen kopurua kalkulatzeko urte gehiago erabili, jubilazio adina luzatu 67 urtera arte; orain 65 urte eta lau hilabete dago, eta 69 urtera iritsi nahi omen dute. Honela, bizi itxaropena laburtu egingo da eta pentsio kopurua apaldu.

Hemendik aurrera Gizarte Segurantzaren sarrerek izango dute arreta, orain arte gastuek izan duten bezala. Baina zeri heldu? Helduleku bat Estatuko aurrekontuak lirateke; Gizarte Segurantzaren defizita aurrekontuekin estali, estatu askotan egiten den moduan. Horrek estatuaren defizit publikoa areagotuko luke eta EBk kontuak eskatuko ditu. Beraz, konponbide zaila.

Bigarren konponbidea zerga berri berezi bat sortzea izango litzateke. Horretarako egitate zergagarri ugari egon badaude, baina errazena BEZ berri bat sortzea litzateke, luxuzko ondasun (auto, belaontzi, eta abar) eta zerbitzuen (hegazkin, bidaiak, lau izarreko hotel eta abar) gain. Baita finantza trantsizioen gainekoa edo finantza gordailuen gainekoa ere, nahiz finantzariek gogoko ez izan. Halaber, hor dauzkagu Zerga Bereziak. Zergatik ez zerga horiek handitu Europako mailan ipiniz?



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Espainiako Gobernuak epe motzeko kontuak biribiltzen zituen, ez ordea epe ertain eta luzekoak. Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitu du eta bien bitartean sarrerak, landunek Gizarte Segurantzari ordaindutako kopuruak ez die jarraitzen gastuei. Hortik etengabe Erreserba Funtse heldu beharra

Beste diru iturri gehigarri bat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) tasa 1-2 puntu igota erdietsitako etekina litzateke. Gainera, PFEZari etxebizitzaren kenkariak arindu liezazkiokete, azken batean beraien

prezioak handitzeko direlako. Horrek guztiak iruzur arriskua handituko luke eta egokia litzateke ikuskariak seriozki hartzea, batik bat, goi-mailako sarreraren jarraipena: exekutibo handiak, eliteko kirolariak, hots, Panama eta antzeko paradisu fiskaletan dirua gordetzen duten pertsona orok. Horrez gain, kapitalaren etekinen gaineko zergak handitzea ere ondo legoke. Horrela, presio fiskala Europa Batasuneko (EB) estandarretara hurbilduko ginatke eta zati bat bederen Gizarte Segurantzaren defizita estaltzeko erabili.

Gizarte Segurantzak ematen dizkie enpresariei zenbait hobari lanpostuak sortzeagatik, kasu askotan iruzurrak direnak. Horregatik, hobari horiek bertan behera uztea ere komenigarria litzateke.

Ez dugu ahaztu behar gure pentsio sistema belaunaldien arteko elkartasunean oinarritzen dela. Alabaina, belaunaldi berekoen artean solidaritatea ere gauzatu beharko litzateke. Izan ere, soldata garaienek Gizarte Segurantzari ekarpen handiagoak egin beharko litzateke. Gaur ordaintzeko oinarri nagusia 3.642 euro/hileko da, berdin langile batek 4.000 euro/hileko esku-ratzen badu edo 50.000, 100.000 edo gehiago. Horregatik, norbanako horien ekarpenek oinarri aurrerakorragoak izan beharko litzateke, baina horrek guztiak borondate politikoa eskatzen du eta ziur asko gobernu honek ez du jo nahi bide horretatik.

Azkenik, noizko Euskal Gizarte Segurantzak? Estatuaren arabera bere kudeaketak euskal erakundearen esku egon behar luke, nahiz ez dirudien gure agintariak epe motzeko xede dutenik. Baina Espainiaren deskonexioa burutu nahi badugu, urratsak ematea derrigorrezkoa dugu. Ez pentsio osagarria bideratzeko, baizik geure sistema propioa eratu ahal izateko. ■

Mexikotik dator notizia

1994. Mexiko ustez otzandu eta baretu batean, Salinas de Gortadi presidente neoliberalak sinatu berria du TLCAN- NAFTA ituna. Amaitutzat ematen da Pancho Villa eta Emiliano Zapataren iraultzaren hondarrean Lázaro Cárdenasek baliabide energetiko eta indar produktibo nagusiak nazionalizatuta eraikitako ongizateko estatu paternalista eta abertzalea. Kapital transnationalei (eta bertako oligarkiei) parez pare irekitzen zaizkio atek ondare nazionalak pribatizatze eta ustiatzeko.

Supituki, Emiliano Zapata ikur Lacandona oihañetik beren buruak mozortuta daramaten indigenek osaturiko armada batek (EZLN) San Cristóbal de las Casas bere egiten du, *Lurra eta askatasuna!* aldarri. Armada horrek ez du zer ikusterik ohiko *gerrila*-rekin. Izaera indigena du eta bere helburua ez da Estatu boterea bere egitea, botereari aurre egitea baizik.

Eta gu harri eta zur.

Harez geroztik EZLNk bidea egin du Chiapas lurraldean, komunitate indigenen auto-antolakuntza babestuz eta komunitatea helburu duen filosofian oinarrituriko *obedecer mandando* (aginduz obeditu) xedez eraturiko gobernu autonomoak (caracolak) osatuz. Alabaina ez da mugatu liberatu-



Joxe Iriarte, *Bikila*

IDAZLEA

Mexikok amildegiaren ertzean dagoen traza guztiak ditu. Institutuzioak pipiak janda daude; ustelkeria da nagusi politikan eta herrian miseria

tako txokoan goxo egotera. Gai izan da *La sexta* deituriko internacional sarea sustatzeko, baita egoeraren arabera Mexiko osorako ekimenak antolatze ere aldian-aldian. 2006an izugarritzko arrakasta izan zuen *La Otra Campaña* Mexiko osoan era askotariko komunitate eta talde desberdinen laguntza eta sostengua lortuz.

2016. Mexikok amildegiaren ertzean dagoen traza guztiak ditu. Institutuzioak pipiak janda daude; ustelkeria da nagusi politikan eta herrian miseria; baliabide naturalen ustiaketa basatia aurrera doa komunitateak deseginez; gizartea militarizatu egin da narkoei aurre egiteko aitzakiaz, eta indar parapolizialen jazarpen hiltzailea nonahi dago. “Emakumezidioa” ahaztu gabe.

Berriro, ustekabean, ohiko abstentzioa alde batera utziz, izugarritzko lurrikara politikoa eragin du EZLNk eta CNIk (Indigenen Biltzar Nazionala) hauteskundeetan parte hartuko dutela adierazi izanak, komunitate auto-antolatuek oinarri, presidentegaia emakume indigena izango dutelarik.

Eta gu aho bete hortz.

Eliteen erantzuna. Mespretxua, arrazakeria eta misoginia. *Castillas*¹ (gaztelaraz, alegia) erdipurdi hitz egingo duen emakume ezjakin bat presidente gai? Izorratuenengan, berriz, poza eta itxaropena.

⁽¹⁾ Galeano (lehen Marcos) subkomandanteak ohiko zuhurtziarekin erantzun die: emakume horrek agian ez du *castilla*-z egoki hitz egingo, baina argi eta garbi bai, eta denok ulertzen dugu. Zuen erretolika ikasia, aldiz, hutsala, iluna eta ulertezina da herriarentzat. Horra diferentzia! ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



AHTren etorkizunaz



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Hamar urte bete berri dira, Lukun (Araba) *Euskal Y*-ren lehengo harria jarri zutela. Galdera ikur handia dabil oraindik proiektu txikitzaile horren gainean. Zenbat urte gehiago? Noiz eta nola jarriko ote diote azkena? Inaugurazioa oso modu diskretuan egin zen, komunikabideen presentzia urriarekin, arraro xamar Euskal Herriko historian diru gehien xahutzen duen azpiegitura (6.000 milioi euro, gaurko kontuen arabera) martxan jartzeko. Egia esan, obrak hasi aurretik beste hamar urte pasa ziren, kontrako mobilizazio eta interpelazio asko tarteko, 2006ko apirilean aurrekontuaren ituna sinatu zen arte.

Joan den urriaren 18an EAJk Madrilgo Kongresuan aurkeztutako lege besteko proposamenak *Euskal Y*-ren egin gabeko obrak planifikatu eta ekonomikoki ziurtatzeko, PP eta EH Bildu zein Podemos-en ezezko botoak jaso zituen. Galdera ikurra handitzen ari da. Denborak eta sosa ez daude finkaturik. Errekurtso ekonomikoak urriagoak dira krisi egoera batean eta ez du ematen epe ertainean Europa edo Madriletik dirua lortzeko erraztasun gehiago etorriko denik. EAJk 1.078 milioi euro aurreratu zituen 2014ra arte, gero kupotik deskontatu behar zirenak, baina galdera da: zenbat diru gehiago aurreratu ahalko du? Zenbat bider esan digute obra hau Madrilék eta Bruselak ordainduko dutela? Orain arte ez da horrela izan, eta aurrerantzean ematen du gero eta zailago izango dela. PPren Espaniako Gober-

nu berriak ez du ematen Euskal Herrian interes handirik duenik, bertoko ministro bat ere ez baitu izendatu.

Abiadura handiko proiektuak eta teknologiak hainbat diskurtso hegemoniko eratzeko erabiliak izan direla dio Diego Garcia Mejutok, Londresen AHTr buruzko tesi doktorala irakurri duen lagun katalanak. *Towards a "Europe of Flows": Discourse, Power and Space in the Development of High-Speed Rail Line in the European Union* izenekoa. Argi dago, hasieratik Madrilgo gobernuentzat (PSOE zein PPrenak) AHTren proiektuak beste geografia eta beste garraio politiken kontzeptualizazioan –*Todos a Madrid en TAV* lema aldarrikatuz– eginda dagoela, EAJren *Euskal Y*-arekin konparatuz, horrek "Ardatz Atlantikoa indartzea" erabiltzen baitu. Hor dago luzapenaren koska!

Gasteizko eta Madrilgo interesak gero eta desberdinagoak ari dira suertatzen. Eta Madrilék zartagina kirtenetik du helduta. Inork ez daki zertan, noiz eta nola bukatuko den auzi hau baina AHTren aurkako mugimendu indartsuago batek, duela hamar urte zegoenaren modukoak, lagun lezake AHTren etorkizuna definitzen. Urgentzia ekologikoa eta premia sozial larrien garaian gaudela eta diru publiko gehiago obra honetan galtzea arduragabekeria itzela da. Munduko bidegorririk garestiena ari dira eraikitzen, Bergarako Hilario-
ren berbetan. ■

Salbuespena



Miren Artetxe
BERTSOLARIA

1894ko udazkenean Aña Etxegarai *Debrua*-k irabazi zuen Hazparneko Euskal Bestetako bertso-sariketa. *L'Avenir* egunkariako kronista jaunak, ezusteko harrigarri hura azpimarratzen du: "Lehen sexu indartsuari soilik zegokion –bertsolaritzaren– generoa, baina, orain gain hartu dio sexu ahulak".

Emakumeak irabazi izana sorpresa, beraz, berriz. Ez baitzen lehen aldia hura. Mariana Hargainek irabazi zuen Kanboko sariketa 1888an. 1869an, Maria Luixa Erdozio izan zen garaile Saran –baita handik sei urtera ere–. D'Abbadie jaunak ezkontza eskaera jarri omen zien gaitzat

azken horri eta Jatsuko zapatariari. *Le Courier de Bayonne*-n aipatzen du Julien Vinson jaunak plaza irriz leherrarazi zutela. Gehitzen du, alta, ez zela ohikoa emazte bertsolariak kantuan aritzea. Sariketa berean, bi urte berantago, bostetik hiru bertsolari emazteak ziren.

Bertsoa bertso denetik ari izan dira emazteak bertsotan. Eta beti egon dira botere-mekanismoak plazara agertu ez edo plazatik desagertu zitezen. Daitezten. Azpimarragarria ez baita soilik mekanismo horiei aurre egin zieten emakumeak egon izana beti. Azpimarragarria, berez, emakume horiek ikusezin ala salbuespen bihurtu izana bera baita. ■

Ohar autobiografikoak

Jaio nintzen egunean, 1978ko maiatzaren 12an, etorkizuneko ez dakit zein unetan amaituko den atzera kontua hasi zen. Amak, berez, hezur eta mamizko kronometro akastun honez baino ez ninduen hornitu. Nire ohar autobiografiko hau osatu bitartean, konparazione, haren mutur bati begiratzeara beste erremediorik ez daukat, zer-bait ulergarria idatziko badut (hain da akastun!), nire sortegunean abiatutako heriotza promesa edozein momentutan bete daitekeela gogora ekarriz eta gero –gaur behintzat– paperera.

* * *

1978ko maiatzaren 12an hasi nintzen nire autobiografiarako dokumentatzen.

* * *

1978eko maiatzaren 12an ezagutu nituen nire gurasoak. Haiek, edo beraien atal 23 kromosomadun banak nigan ezagutu zuten elkar bederatzit bat hil lehenago, abuztuko egun edo gau batez, Burlatako festetan seguruenik, egiantzekotasunez bizipoz etiliko betean, zeinak, dagoeneko ezkondata zeudela aintzat hartuta, nerabe eta arduragabe puntu bat ematen baitio nire sorkundeari. Zesareaz atera (edo erauzi) ninduten amaren sabeletik. Horrek birjintasun klaseren bat ematen didalako ustean bizi izan naiz luzaro. Beste norbaiten 23 kromosoma nigan bilaketa burugabe bati ekin zioten aurreneko eguna ongi dut gogoan –urtarrilaren 6ko batean izan zen–, baina ez dut urtea esanen. Kalkulatu beharko nuke.

* * *


Ni jaio nintzen Rafael Gurrea, Amadeo Marco, Ramón Rubial, Adolfo Suárez, Valéry Giscard d'Estaing, Jimmy Carter, Leonid Ilitx Brezhnev, Montini Aita Santua, Aita Villasante, Janelle Commissiong eta Mary Stävinen agintaldiaren pean. Hamaika kargu horietako hiru –hau idatzi bitartean; argitaratutakoan, behar-



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

bada lau– baino ez daude orain, 14.055 egun geroago –hau idatzi bitartean–, emakumezkoen esku.

* * *

1978eko maiatzaren 12an jaio nintzen, nik dakidala, lehen aldiz. Harrezkerro gero eta gauza gutxiago egin ditut, nik dakidala, lehen aldiz. Euskara ikastera, esaterako, 17 urterekin hasi nintzen bigarren aldiz. Gurasoek eraman (baina urtebetera atera) ninduten Uharteko hartzaindegi euskaldunaren kalifikazio orrialdean euskarazko hitz batzuk banekizkiela jasota dago andereñoaren kaligrafia txukunean, nahiz eta –zehazten du txostenak– ez oso ahoskera garbian, baina hori bai euskaraz bai gaztelaniaz gertatzen omen zitzaidan. Dagoeneko ez ditut hitz bakan horiek gogoan. Bai gogoratzen naiz behin zigortu nindutela patioa zuhaitzean txiza egiteagatik, ez bainekien komunera joateko eskatzen, edo eskatzeak lotsa ematen zidalako bestela. Geroago, zehazten ere dakidan adin batean, baina atzera ere erdaldun petoa nintzenean, amak psikologo batengana eraman ninduen kezkatuta jendaurrean txintik esaten ez nuelako. Ez dut gogoan zer egingen zidaten edo nik zer esanen nuen kontsulta horretan, ez bainuen itzuli behar izan. Halere, beti irudipena dut desgogara mintzo naizela, edozein hizkuntzatan ari naizela ere.

* * *

Bere buruaz nekatutako mende baten amai aldera jaio nintzen, bere historiaz nekatutako kontinente bateko lurralde nortasun arazodun batean, ahultzen hasitako genero biologiko baten ezaugarri morfologikoen baitan. Hortik aurrerako guztiak, ez mende berriak, ez neure burua euskaldun-edo sentiarazteak, ez gixon-erdia izatearekin etsitzeak, ez nau funtsean mende amaierako, nazionalitate arazotsuko eta gizadi erdia mende edukitzearen konplize izatetik libratu. Idazteak batzuetan bai. ■

EUSKARAZ DAKITEN
ESTABLEZIMENDUETAN
IRUDI HONEN
ANTZEKOA
IKUSIKO DUZU

donostian
ere
euskaraz

eta azaroan
lehiaaketa!

INFORMAZIOA
ETA
ESTABLEZIMENDUEN
ZERRENDA:



www.donostiaeuskaraz.eus



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



#ereuskaraz

ANTISORGAILU HORMONALAK ASKATZAILEAK BAI, ETA OSASUNTSUAK?

Emakumeek beren gorputzez erabakitzeke tresna gisa gizarteratu zituzten antisorgailu hormonalak. Sexu harremanak haurrak ekartzeko bitarteko izatetik plazer esparru izatera igaro dira. Negozio iturri galanta dira ordea emakumeentzako antisorgailuok, eta osasunerako kaltegarriak ez direla esatea asko esatea da. AEBetan farmazia-industriari jarritako salaketa kopuruak ikusi besterik ez dago.



Malen Aldalur Azpillaga
@malenaldalur

Ginekologoek -harreman egonkorak dituzten emakumei behintzat- antisorgailu hormonalak errezetatzen dituzte. Nazio Batuen Erakundeak 2013an egindako *Munduko Kontrazepzio Ereduak* ikerketaren arabera, haurrak izateko garaian dauden emakumeen %13,5ak hartzen ditu antisorgailu hormonalak, hirugarren antisorgailu mota erabilienak dira. Noizbehinkako harremanetan, aldiz, oraindik kondoia gomendatzen dute.

Hainbat antisorgailu hormonal mota daude emakumeentzat: pilulak, partxeak, eraztunak, eta UBG umetoki barneko gailua (DIU bezala ezagunagoa). Baina zein albo-kalte dituzte haurdunaldiak saihesteko erabiltzen diren antisorgailu horiek? Badago bestelako aukerarik? Zergatik egiten dituzte soilik emakumezkoentzako antisorgailu hormonalak?

Espainiako eta Frantziako estatuetan farmazia-industrien aurkako salaketak urriak diren arren, Ameriketako Estatu Batuetan emakume asko dira antisorgailu hormonalek sortutako kalteak salatu dituztenak. Meritxell Guàrdia i Serentillek *Pikara Magazine* aldizkarian *Anticoncepción hormonal: lo que nos venden y no nos cuentan* artikuluan aipatzen du farmazia-industriak epaiketak saihesteko milioika dolarreko indemni-

zazioak ordaindu dituela erabiltzaileek jarritako salaketengatik. Salatutako antisorgailuen artean aipatzen ditu Yaz, Yasmin, Diane35 (Bayer markakoa) eta NuvaRing. Zainetan odolbatuak sortzea da, esaterako, albo-kalteetako bat.

2014. urtean Bayer farmazia-industria alemaniarrek aitortu zuen 1,8 milioi dolar ordaindu zituela Ameriketako Estatu Batuetan Yaz, Yasmin, Ocella eta Gianvi markengatik pilatutako 8.999 salaketen harira, eta oraindik 4.000tik gora salaketa geratzen zaizkio ordaintzeko.

Miguel Jara Madrilgo kazetaria da, osasun eta ekologia gaiak ikertzen ditu, eta besteak beste, *Laboratorio de médicos. Viaje al interior de la medicina y la industria farmacéutica* (Península, 2011) liburua argitaratu du. Informazioa ezkutatzeke farmazia-industriak egiten duen ahalegina salatzen du bere lanaren bidez: "Saldu ahal izateko nahi dutena kontatzen digute. Egiazko informazioaren beldur dira, bezeroak galdu ditzaketelako".

Meritxell Guàrdia i Serentillek *Pikara Magazine*-n AEBetako Droga eta Elikagaien Administrazioak 2012an emandako datu batzuk aipatzen ditu. Horien artean, esaten du 2004 eta 2008 urte bitartean antisorgailu hormonalek zerikusia izan zutela 50 pertsonen heriotzetan.

Bestalde, kontuan izan behar da horiek hartzen dituzten emakume askok ez dituztela haurdunaldiak saihesteko hartzen, bestelako osasun arazoei aurre

egiteko baino: aknari edo burusoiltasunari kasu. Hainbat mediku elkartek beste alternatiba batzuk ez lehenestea salatu dute.

NuvaRing eraztunak ere mila salaketatik gora jaso ditu. Antisorgailu hori da eraztunen artean ginekologoek gehien gomendatzen dutena. Bestalde, Diane35 antisorgailua merkatutik kendu zuen 2013. urtean farmazia-industria frantses batek, segurtasun arrazoiengatik.

Zein eragin dute antisorgailuek emakumeen gorputzetan?

Pilulek, partxeek eta eraztunek feedback moduko bat eragiten dute hipofisiaren eta obarioaren artean, eta horrela, obuluak sortzea saihesten da. Formula konbinatu eta sekuentzialen bitartez obulutegia ezgai bihurtzen da. Funtsean, antisorgailu hormonalek norbere buruari iruzur egiten diote.

Antikontzeptibo horiek osasun onurak ere badituztela aldarrikatzen da. Honako hauek aipatzen dira: tronpatako infekzioak gutxitzen dituzte, endometriosisa babesten dute, obarioko kisteak gutxitzen dituzte eta obarioetako minbizia izateko aukerak ere murrizten dituzte.

Aldiz, emakume erabiltzaileen salaketek bestelakoa ere badiote. Arlo emozionalari erreparatuta, askok depresioa, sexurako gogorik eza edota desoreka emozionalak aipatzen dituzte. Carmen Valls endokrinologoak *Mujer y Salud* ize-



neko aldizkarian epe motzeko zenbait ondorio aipatzen ditu: pisua hartzea, goragalea, bularretako mina, hilekoaren zikloak gutxitzea, metrorragia eta edemak. Beste ondorio batzuk epe luze-koak dira: sistema endrokinoan kalteak sortzea edo haurdun geratzeko aukerak gutxitzea. Dena den, ondoriorik larriena tronboenbolismo arteriala litzateke, hau da, zainetan odolbilduak sortzea.

Altenatibak

Guàrdia i Serentillek antisorgailu hormonalaren alternatibak aipatzen ditu; horien artean, batetik, diafragma, eta bes-tetik, haurdunaldia saihesteko metodo naturalak. Aukera horiek gorputzaren eta hilekoaren inguruko ezagutza handia eskatzen dute. Erakundeek metodo horiek baztertzeko ematen duten arrazoia eraginkortasun eza da, nahiz eta Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, eragin-kortasuna %95 eta %97 artekoa den.

Diafragma disko itxurako antisorgailu fin eta malgua da, eta hesiarena egitea du helburu. Umetokira bidean jartzen da eta espermatozoidetara sarrera eragozten die. Sexu praktika baino bi eta sei ordu bitarte lehenago jarri behar da eta sei orduren ondoren erantzi. Antisorgailu naturalei dagokienean, berebiziko garrantzia du norbere burua eta zikloak xehetasunez ezagutzeak. Egun ugalkorretan sexu harremanak izatea baztertzeko da.

Erakunde gehienek antisorgailu hormonalak gomendatzen dituzte, haurdunaldia saihesteko eraginkorrenak diren antikonzeptibotzat dituztelako, eta AEMPS Espainiako Estatuko medikamentu eta osasun produktuen agentziaren arabera, kalteak baino onurak gehiago dituzte. Orain dela urte batzuk, agentzia beraren aginduz, antisorgai-



lu hormonalen prospektuak eguneratu zituzten; egiazko albo-kalteak ager-tezen eskatu zuten. Hala ere, hainbat kolektibok ikerketa gehiago eskatu du, ez baitago argi epe luzera zein ondorio izan ditzaketen.

Azken 30 urteetan asko aurreratu da antisorgailu hormonei dagokienean. Duela hiru hamarkada hormona dosi oso altuak zituzten antisorgailu hormoneak: 50 mikrogramo. Emakume askori kalte egiten zien, eta azukrearen metabolismoan, gantzaren metaketan eta gibe-leko gaixotasunetan eragina zuen. Orain dela 25 urte dosi kopurua 30-35 mikrogramo-tara jaistea lortu zuten, eraginkortasuna galdu gabe, eta emakumeei albo-kalte gutxiago eragin zizkieten. Azkenik, orain dela 15 urte, 15-20 mikrogramora jaitsi zuten dosia, emakume gehienengan ondo funtzionatuko zuela pentsatuta. Dena den, batzuek uste dute hormona dosiak

2014. urtean Bayer farmazia-industria alemaniarak aitortu zuen 1,8 milioi dolar ordaindu zituela Ameriketako Estatu Batuetan Yaz, Yasmin, Ocella eta Gianvi markengatik pilatutako 8.999 salaketen harira.

AZAROAK 23

15:00 SOLASALDIA liburutegian, Josebe Iturriozekin, indarkeria matxistari buruz.

AZAROAK 25

20:00 ELKARRETARATZEA udaletxe aurrean.

22:00 ANTZERKIA auditorioan.

"Prest gaude". Lakrikun. 3 €



ANOETA
UDALA

EMAKUMEEN GANAKO
INDARKERIARI EZ



Emakumeen Etxea eraikitzen ari gara Hernanin



es
berdintasun kontsailua

MUNDUKO KONTRAZEPZIO EREDUAK (2015)

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN IKERKETA



Ezkondutako emakumeen
%64k
antisorgailuak
erabiltzen ditu



216 milioi
emakume ezkondu
antisorgailu modernoak
nahi eta ezin ditu eskuratu




10etik 9k
antisorgailu
modernoak
darabiltza




Afrikan, familia
plangintza-beharraren
%60ari
erantzuten zaio

ANTISORGAILUEN ERABILTZAILEEN ERDIAK EDO GEHIAGOK DARABILTZATEN METODOAK (EZKONDUTA EDO BIKOTEAN BIZI DIREN 15 ETA 49 URTE ARTEKOAK)

HERRIALDE
KOPURUA



ANTISORGAILU MOTEN ERABILERA EHUNEKOTAN (EZKONDUTA EDO BIKOTEAN BIZI DIREN 15 ETA 49 URTE ARTEKOAK)



gutxitzeak ez duela zertan beti onura ekarri. *Trótula crítica* ginekologiaren inguruko webguneak hainbat argudio erabiltzen ditu hipotesi hau defendatzeko. Hasteko, azaltzen du estrogeno kopurua asko aldatu daitekeela emakume batetik bestera, baita hilekoaren egunaren arabera ere. Antisorgailu hormonalak hartzean obarioak funtzionatzeari uzten dio. Denbora tarte horretan gorputzean dauden hormona femeninoak antisorgailuak botatakoak baino ez dira izango. Dena den, azaltzen du ohikoa dela antisorgailu hormonalek hainbat albo-kalte sortzea lehen hiru hilabeteetan; hortik aurrera jarraituko balute, antisorgailua aldatzeko gomendioa egiten dute.

Gizonentzat zergatik ez?

Azken urteetan hainbat ikerketa egiten ari dira gizezkoentzako antisorgailu hormonalak asmatu asmoz, baina oraindik ez dituzte merkaturatu. Gaur egun gizonentzat bi antisorgailu mota daude: kondoia eta basektomia.

Kondoiek hainbat abantaila dituzte: merkeak dira, eta sexu transmisiozko gaixotasunak saihesteko balio dute. Ba-

sektomia berriz, ia guztiz eraginkorra da. Barrabilak semen besikularekin lotzen dituen hodi deferenteak mozteko ebakuntza egin behar da eta ondoren hainbat denboraz antisorgailu bat erabili. Oso zaila da behin basektomia egin da atzera itzultzea.

Esanguratsua da azken urteetan emakumeentzako antisorgailuek izan duten garapena eta sortu dituzten aukera anitzak ikusita, gizonetan arlo hori hain gutxi garatu izana. Gaur egun hainbat

» Osasunaren Mundu Erakundeak dio diafragmak eta metodo naturalek %95etik gorako eraginkortasuna dutela. Alabaina, erakunde askok baztertu egiten dituzte eraginkortasuna ez delako nahikoa

ikerlerro abian dira, besteak beste, hormona sintetikoaren bidez tarte baterako espermatozoideak sortzeari uzteko metodoa, eta modu ez hormonalei dago-kienean, espermatozoideak baginan ez sartzeko teknikak probatzen ari dira.

Jalees Rehman Illinoisko Unibertsitateko ikertzaileak azaldu duenez, proba klinikoetan parte hartzen duten gizon boluntarioek emakumeek baino gutxiago jasaten dituzte albo-kalteak. Orduan zergatik ez dira gizezkoentzako antisorgailu hormonalak merkaturatzen? Farmazia-industriek ez dute interes berezirik jarri horretan; adibiderako azken urteetan merkaturatu dituzten emakumeentzako antisorgailu hormonal andana eta gizonentzako antisorgailu hormonal urriak.

Dena den, aipatzen dituzte bestelako zailtasun batzuk ere, esaterako, emakumezkoek hilean obulu bat sortzen dute eta gizezkoen kasuan milioika espermatozoide desegin beharko lituzkete. Ikertzen ari dira, eta emaitzak ere lortu dituzte; baina badirudi farmazia-industriek ez dutela gizonentzako antisorgailu hormonaletan inbertitu nahi. ■

2016 INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK

ETA SALAKETAREN
ONDORREN,
ZER?

23
AZAROAK

ANTOLAZAILEA:

ZARAIZKO UDALA

BABESLEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ezkerreko Zuzendaritza Nagusia
Dimitzio Garmendia de Guadalupe

Indarkeria matxista jasan duten emakumeek behin salaketa jarritz gero biltzen duten prozesuari buruzko gogoeta egin nahi dugu jardunaldi hauetan. Horretarako gai hauek aztertuko ditugu:

• Asko hitz egin da indarkeria matxista kasuetan salaketa jartzearen garrantziari buruz. Baina zer prozesu pasatu behar du salaketa jarri duen emakumeak?

• 12 urte bete dira 1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik [genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa]. Legearen argi-itzalak aztertuko ditugu, azken 12 urteko esperientzian oinarrituta.

EGITARAUA

9:30. Harrera.

9:45. Inaugurazioa.

Xabier Txurruka, Zarauzko Udaleko Alkatea eta Gloria Vázquez, Parekidetasun departamentuko zinegotzia.

10:00-11:00. Indarkeria sexistaren aurkako erantzun penala: alde onak eta txarrak. Miren Ortubay (EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea eta Maria de Maeztu forum feministako kidea).

11:00-11:30. Atsedena-kafea.

11:30-12:30. Eguneroko jardunaren mitoak eta errealitateak Epaletzetan. Patricia Verdes Cearra - abokatua - genero indarkerian aditua.

12:30-13:30. Salaketak emakumeengan duen eragin emozional eta psikologikoa. Norma Vázquez García, feminista, psikoterapeuta, Sortzen aholkularitzako zuzendaria.

14:00-16:00. Bazkaria.

• Gogoeta egingo dugu epailetzako prozesuari buruz eta indarkeriaren biktima den emakumeak jasan dezakeen bigarren biktimizazioari buruz.

• Azkenik, esperientzia hori bizi izan duten emakumesi aholtsa emango diogu.

Jardunaldiaren helburu nagusia izango da salaketa jartzearen alde onak eta txarrak ezagutzea eta salaketa jarri duten emakumeek pasatzen duten prozesuaren nondik norakoak jakitea.

16:00-17:00. Erronka berriak, genero indarkeriaren aurrean. Blanca Estrella Ruiz Ungo, Clara Campaamar elkarteak presidentea.

17:00-18:00. Genero indarkeriari aurre egiteko ahalduntzea. Indarkeria jasan duten emakumeen elkartearen esperientziak. Hoize Berria [Bilbo], Mujeres que aman demasiado [Bilbo] Mujeres Bizirik [Gasteiz] eta Mujeres al Cuadrado [Eibar]

18:00. Itxiera.

Aurre izen-ematea (plaza kopurua mugatua):

• ONLINE
www.berdintasunazarautz.wordpress.com
• Parekidetasun departamentua
Zigordia 33, 1. solairua
berdintasuna@zarautz.eus / 943 005 117

Jardunaldiak: Alameda Hotelean izango dira

• Hitzaldi guztiak gaztelaz. Aldi bereko itzulpena eskainiko da gaztelaniatik euskarara.
• Sarrera doan.
• Hotelean bazkaltzeko aukera: 15 €

KU KLUX KLANEN BABESA DUENAK ORDEZKATU DU AEB-ETAKO LEHEN PRESIDENTE BELTZA



Axier Lopez
@axierL

Donald Trump multimilionarioa bilakatu da Amerikako Estatu Batuetako 45. Presidente, askoren ezustetarako. Trumpek ez du inoiz ardura publikorik izan, bere hautagaitzak alderdi barruan zatiketa eragin du, aho bilorik gabe mezu xenofobo argiak plazaratu ditu, sexu erasoak egiteagatik dozena bat emakume baino gehiagoren salaketak jaso ditu, nazioarteko eragile, alderdi eta herriar askok bere buruaren parodia gisa ikusi dute... baina bere garaipena argia izan da. Halere, ondorengo datuak ere azpimarratu behar dira: demokraten hautagai Hillary Clintonek orotara Trumpek baino 222.000 boz gehiago lortu ditu, eta Trumpek ez du irabazi milioi bat biztanle baino gehiago duen hiri bakar batean ere. Mundu osoan errepi-katzen den binomioa da: landa eremua eta hiria aurrez aurre.

Mexikoko etorkinei kriminalak eta bortxatzaileak deitzen ekin zion Trumpek hauteskunde kanpainari 2015ean. Hauteskundeak irabazi ostean hartu duen lehen erabakietako bat izan da “aurrekari penalak” dituzten paperik gabeko etorkinak kanporatzea. Mexiko eta AEBen arteko muga “indartuko” du aurrena, eta horren ondoren erabakiko du gainerako paperik gabeko etorkinekin zer egin. Gai honetan Barack Obamaren marka onduko duela dirudi. Izan ere, Bakearen Nobel saridun eta

AEBetako lehen presidente beltzak hiru milioi lagun baino gehiago deportatu ditu bi legegintzaldietan. Xenofobia eta klasismoa hauspotzen ari diren Europako alderdiak pozik agertu dira Trumpen etorreraz. Poloniako presidente Andrzej Duda eta Marie Le Pen ultraeskuindar frantsesak izan dira lehenak Trump zoriontzen, eta honek garaipenaren ostean aurrez aurre jaso duen lehen politikari europarra Nigel Farage izan da, Brexitaren bultzatzaile nagusi izan den UKIP xenofoboaren burua.

Halere, Ku Klux Klanen moduko taldeen babes publikoa jaso duen hautagaiaren garaipena ez du arrazakeriak edo sexismoak soilik azaltzen. John Stepling antzerkigileak gordin azaltzen duenez, “liberalen akats nagusia izan da Trumpek faxismoa ekarriko zuela pentsatzea, baina ez dira jabetu faxismoa dagoeneko hemen zela”. Azken urteotan –Obamaren politika neoliberalak barne– nabarmen pobretu diren ehunka milaka lagun ezinegonak ondo bideratzen asmatu du Trump magnateak. Status Quo eta egungo sistemaren funtzionamenduari nazkatuta dagoen jende saldoaren ezinegonak eskuinak bideratu du. Beste behin ere. “Aberatsa pobreen defentsan” kontraesana berriz gailendu da bestelako aukera faltaren aurrean. Trumpi aurre egiteko demokraten kanpaina eta hautagaia ezin oke-rragoak izan dira. Trumpen “alternatiba” Wall Streetek ondu, babestu eta sustatutako hautagai bat izan da: Hillary Clinton. Eta horri gehitu behar diogu demokraten barruan hautagaitzak sortu

duen ezinegonak. Primarioetan Bernie Sanders garaile izan zen zenbait estatu garrantzitsuetan, laku handien gerrikoan– Michigan, Wisconsin eta Indianan– adibidez, demokratek bozen %10 baino gehiago galdu dute eta, are esanguratsuagoa dena, partaidetza jaitsi da. Clintonen aldean ezkerreko soslai nabariagoa du Sandersek, eta begi bistakoa dirudi bere alde egin zuten milaka lagun etxean geratu direla hauteskunde gauean.

Trumpen garaipenaren “ezustekak” protestak sortu ditu AEBetako hiri askotan. Istiluak eta tiroketak ere izan dira zenbait tokitan “Ez da nire presidentea” aldarrikapenaren atzean. Trump ala Clinton, kapitalismoaren bi aurpegiaren artean erabaki beharrak berriz utzi du ezkerreko jokoaren kanpo. Mendebaldeko ezkerreko alderdi gehienek “Gerraren Erreginaren” alde egin dute, “aukera ez hain txarra” omen zenaren alde. Eta AEBetan bertan ere aldeak ageri dira ezkertiarren artean. Honatx bi adibide. Batetik, Angela Davis: “Jende beltzaren lehentasuna Trump geldiaraztea da. Ez naiz Clintoni ez diodala boza emango esateko bezain nartzisista”. Eta bestetik, Mumia Abu-Jamal: “Trump baldin bada clintondarren neoliberalismoa garaitzeko ordaindu behar dugun prezioa, hala bedi”. Bipartidismoaren joko arauak ezkerreko jokoaren kanpo utzi dute atzera ere, eta datozen lau urteetan gatazka eta tal-
karik ez da faltan izango AEBetan.

Segidan garaipenaren arrazoiak eta ondorioak hobeto ulertzeko zenbait analisi eta iritzi. ■

Ekonomia da, ergela



Asier Blas

@asierblas

AEBetako hauteskunde biharamunean, Harvard unibertsitatean ospatutako mahai inguru batean David Laibson irakasleak esplikatu zuen ekonomiak garrantzia handia izan duela Donald Trumpek jaso duen babesa ulertzeko. *Edison Research for the National Election Pool*-ek hauteskunde egunean hautestontzietatik pasatako 24.537 pertsonari egin zien galdeketa. Inkestatuek lau aukeren artean identifikatu behar zuten hauteskundeetako gairik garrantzitsuena: %52ak ekonomia hautatu zuen gako nagusi gisa, %18ak terrorismoa, %13ak kanpo politika eta %13ak etorkinak.

Egoera ekonomikoa bikaina zela esan zutenen artean %16ak Trump bozkatu zuen eta egoera ona zela esan zutenen artean %19ak. Berriz, egoera balekoa (ez ona ez txarra) dela uste zutenen %55ak babestu zuen Trump, eta egoera txarra zela esan zutenen %79k egin zuen hautagai errepublikarraren alde. Honek arrakasta izan du bereziki ikasketa unibertsitariorik gabeko zuriaren artean (%67), izan ere, horiek baitira erlatiboki atzera pausu gehien ikusi dituztenak beren egoera sozioekonomikoan. Amets amerikarraren baitan dagoen ideia da familiako hurrengo belaunaldiak hobeto biziko direla, baina hori aspaldi hautsi da ikasketa unibertsitariorik gabeko zuriaren artean.

Unibertsitateko ikasketak ez dituzten pertsonak azpi-ordezkatuta daude AEBetako botere esparru askotan, besteak beste, ekonomian, politikan, kulturen, hedabideetan eta alderdi politikoetako eliteetan. Horregatik, beren ardura eta kezkek ez dute protagonismo handiegirik izaten agenda politikoan. AEBetan 50 urtez ari dira desberdintasun sozialak handitzen eta

azkeneko 30 urtetan erritmoa asko bizkortu da. Laibsonen hori azaltzeko ikasketak mailaren arabera soldaten garapenari erreparatu zion: ikasketa unibertsitarioak dituztenen soldatek hazkunde handia izan dute azkeneko hamarkadetan eta aldea handitu baino ez da egin ikasketa unibertsitarioak ez dituztenen aldean.

Hauteskunde eguneko galdeketa familiararen egoera ekonomikoaz ere galdetu zuen. Egun egoera hobea dutenen %24ak soilik babestu du Trump, egoera antzekoa dutenen artean %46ak eta aldiz, egoera okerragoa bizi dutenen %78ak botoa eman du errepublikarraren alde. Etorkizuneko familiararen espektatiba ekonomikoari dagokionez, aurreikuspen txarrak zituztenen artean, %63k bakarrik hautatu zuen Trump.


Datu hauek argi utzi dute Bill Clintonen Bush aitari irabazi zionean bolo-bolo zebilen lelo ez ofizial hura egia izan dela beste behin: ekonomia da, ergela. Trumpek boto-emaile kontserbadorea fidelizatzeko mezuak bidali ditu, besteak beste, abortuaren aurka, zergak jaistearen alde edo armen gaineko kontrolaren aurka. Baina benetan berritzailea izan dena da globalizazio neoliberalaren galtzaile nagusiak identifikatu eta horien ardurak lehen lerroan jartzea: etorkinak, industriako lanpostuak, merkatu askeko akordioak, kriminalitatea, eskuragarri den osasungintza bat, amets amerikarra (klaseen arteko mugikortasuna), harrotasun nazionala, botere finantzarioen diktadura, establishmenta etab.

Trumpek erabili duen estrategia beraz, eraginkorra izan da. Hauteskundeak irabazi ditu, nahiz eta hedabideak, botere faktikoak eta bere alderdiko parte bat aurka izan. Eskuin



populistak egiten duen legez, Trumpek hautsi egin du Coca Cola eta Pepsi artean hautatzeko hauteskundeekin. Mendebaldean inposatu den muturreko zentro progreararen ideologia onargarri bakarrarekin hautsi du. Baina dena esan behar bada, demokratek asko lagundu dute. Izan ere, globalizazio neoliberalaren, establishmentaren eta ustelkeria pertsonifikatzen ditu Hillary Clinton eta nekez irudika daiteke bera baino hautagai okerragorik.

Demokraten gaixotasuna Mendebaldeko ezker hegemonikoan instalatuta dagoenaren seinale gisa, Europar parlamentuko talde ezkertiar guztiek babestu dute Hillary Clinton, ikuspegi kritiko gutxiarekin. Propaganda tsunami bat egon da hautagai demokrataren alde, momentu batzuetan XXI. Mendeko Emma Goldman baten aurrean ginela zirudien. Errealitatea ordea, oso beste-lakoa da. Clintonen alde egitea zen Wall Streeten interesak defendatzen dituen



RICK WILKING/REUTERS.TIF

hautagaiaren aldeko kanpaina egitea. Clintonen aldeko kanpaina egitea zen inperialismo gerrazale sutsuenaren alde egitea. Baina, antza Clintonen hildakoak, suntsitu dituen herrialdeak edo babestu dituen estatu kolpeak ez dira arrazoi nahikoa izan ezkerrek babesa ukatzeko.

Hillary Clinton ondo lotzen da egokitasun politikoaren diskurtso eta irudiarekin. Astakeriak esaten ez dituen artean, berdin du zer egiten duen, itxuraren gizartean bizi gara. Baina itxura inportantea bada klase ertain eta altuarentzat, langile klasearentzat eta batez ere, pobretzen

ari direnentzat ez da hain garrantzitsua izaten. Horregatik, Mendebaldeko ezkerrek agenda ekonomikoa eta langile klasearen interesen defentsa serio hartu ezean, horiek eskuin populistaren esku geratuko dira, beren gainerako neurri atzerakoi guztiekin batera. ■

#bbt16 Finalurrekoa



Bizkaiko bertsolari txapelketa 2016

Antolatzailea: 

Babesleak:   



MARKINA-XEMEIN

Uni frontoian

Azaroaren 19an, 17:30ean

Eneko Abasolo Txabarrri 'Abarkas', Jone Uriu Albizuri, Joseba Barandiaran Andueza, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Bartra Arenas, Txabier Altube Sarriandia

Gai-jartzailea: Amaia Ugaldé Begofia

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

Hedabide handiek zentsuratu zituzten eta bere garaipena azaltzen duten Donald Trumpen zazpi proposamen

Ignacio Ramonet

1- Kazetariak ez diote barkatzen, hasteko, botere mediatikoari eraso egin izana aurrez aurre. Mitinetan jendea hedabide "desonestoei" txistu egitera etengabe animatzea aurpegiatzen diote. Trumppek esan ohi zuen: "Ez naiz Hillaryren aurka lehiatzen ari, hedabide ustelen aurka ari naiz lehiatzen". Orain gutxi idatzitako txio batean adibidez, haxe zioen: "Hedabide ustel eta nazkagarriek modu zintzoan jasoko balute niri buruzko informazioa eta ez baliete nire hitzei esanahi faltsurik txertatuko, Hillaryri %20ko aldea aterako niokeen".

Beren jarraipen mediatikoa injustua edo partziala iruditzeagatik hautagai errepublikarrak ez zuen dudarik egin eta hainbat hedabide garrantzitsuri prentsa kredentzialak kendu zizkien: *The Washington Post*, *Politico*, *The Huffington Post* eta *BuzzFeed*. *Fox News*i eraso egiten ere ausartu zen, eskuin panfletarioaren telebista kate nagusiarri, nahiz eta honek erabat babestu.

2- Trumppek globalizazio ekonomikoa salatzen du, uste baitu honek amaitu duela klase ertainarekin. Bere hitzetan, ekonomia globalizatua geroz eta jende gehiagori ari zaio huts egiten. Gogoratu du azken hamabost urteetan, 60.000 fabrikatik gora itxi direla AEBetan eta ongi ordaindutako ia 5 milioi industria-lanpostu desagertu direla.

3- Protekzionista sutsua da. Inportatutako produktu guztiei tasak igotzea proposatzen du. "Herrialdearen kontrola berreskuratuko dugu, berriz ere AEB herrialde handi bat izatea lortuko dugu". *Brexit*-aren aldeko pertsona honek argitu izan du, behin presidente hautatuta, AEBak NAFTA hitzarmenetik aterako dituela (Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Hitzarmena). TTIPen aurka ere egin izan du. "TTIPa kolpe hilgarria li-



TED S. WARREN / AP

tzateke AEBetako eskulangileen indutiarako". Ipar ekialdeko *Rust belt* edo gerriko oxidatuan mezu hau indartsu sartzen ari da, non deslokalizazioek eta eskulangileen fabriken itxierek langabezia maila handiak utzi zituzten.

4- Gizarte segurantzaren murrizketa neoliberalen aurkako jarrera ere erakutsi izan du. 2008ko krisi ekonomikoa-ren biktima diren hautesle errepublikar askok edo 65 urtetik gorako herritarrek behar dute Barack Obama presidenteak garatutako eta beste lider errepublikarrek kendu nahi duten *Social Security* (jubilazioa) eta *Medicare* (osasun segurua). Trumppek hitz eman du hori ez duela ukituko, medikamentuen prezioak jaisten saiatuko dela, etxerik gabekoen arazoak konpontzen saiatuko dela, zergadun txikien fiskalitatea erreformatzea eta 73 milioi etxe xeheri

eragiten dion zerga federala kenduko duela.

5- Wall Streeten harrokeriaren aurka, Trumppek proposatu du dirutzak irabazten dituzten *hedge funds* korredoreei zergak nabarmen igotzea. 1933ko Depresioan onartutako *Glass-Steagall* Legea berrezartzea defendatzen du. Lege honek banka tradizionala eta inbertsioak egiten dituen banka bereiztea dakar, lehenak arrisku handiko inbertsioak egitea ekiditeko. Finantza sektore osoa, noski, neurri hau berrezartzearen aurka dago erabat.

6- Nazioarteko politikan, Trumppek aliantza egin nahi du Errusiarekin Estatu Islamikoa eraginkortasunez borrokatzeko. Horretarako Washingtonek aitortu behar badu ere Errusiak Krimea anexionatu izana.

7- Trumppek uste du, zor erraldoiarekin, AEBek ez dutela nahikoa baliabiderik nazioarteko politika indiskriminatua egiten jarraitzeko. Dagoeneko ezin dute bakea inposatu edozein prezioan. Bere alderdiko hainbat kazikek ez bezala, Guda Hotzaren amaieraren ondorio logiko gisa, NATO aldatu nahi du: "NATOk herrialdeek ez dute babes automatikoaren bermerik sekula gehiago izango".

Proposamen hauek guztiek ez dituzte arintzen hedabide handi dominatzaileek lau haizetara zabaldu dituzten adierazpen ez-onargarri, gorrotagarri eta batzuetan higuigarriak. Baina bere arrakastaren arrazoiak hobeto azaltzen laguntzen dute. ■

Ignacio Ramonetek artikulu mamitsua argitaratu du Donald Trumppek hauteskundeak irabazi berritan. Bertan azaltzen du hedabide nagusiek Trumpen hainbat adierazpen lau haizetara zabaldu dituztela, baina beste hainbat isilean pasarazi dituztela, AEBetatik kanpoko herritarrei ez jakinaraziz.

Gorputz ez arautuak

Amaia Elortegi: "Ni sobera ez babestea funtsezkoa izan da"

Gorputza nolakoa den ikasi dugu eskolatik, eta eredu orokor horrekin identifikatzen edo ez identifikatzen. Gutxi dakigu, ordea, gorputz ez arautuen inguruan. Amaia Elortegik, izate hutsarekin, begirada zabaldu die ingurukoei, bere gorputza ikasgai izanik. Hala kontatu digu.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Amaia Elortegi, Pasai San Pedrokoa (Gipuzkoa). Euskal Filologian lizentziatua. Sukaldean aritzea, marraztea, kirola egitea, musika, dantza eta ibiltzea gustuko ditu. Urte eta erdi zuenean bakteriatik septizemia eragin zion, odoleko infekzioa. Odol "gaizto" horrek gorputzeko lau adarrei eragin zien, hanka eta besoei. Burua ere adar bat denez, hari ere eragingo ziola uste zuten.

Infekzioak baldintzaturik pasa zuen haurtzaroa: "Hurbilekoek uste zuten bizirik ateratzekotan, egoera begetal batean geratzeko izango zela; ez zuten nigatik deus ematen". Hilabete eta erdiz egon zen koman, baina bizirik irten zen. Buruan ez zuen jasan kalterik, gainera.

"Informazioa bildu eta gaixotasuna tratatzeko leku baten bila hasi zen familia. Amaren lagun bati esker Alemaniako erizain bat ezagutu genuen eta bertako zentro espezializatu baten berri eman zigun. Paper asko bete ondoren amarekin batera joan nintzen hara. Hamaita ebakuntza inguru egin dizkidan Alemanian. Horiei esker egun gauza asko egiten ditut. Nerbio asko utzi zizkidaten onik eskuetan, eta mugimendua daukat".



Elortegiri bakteriatik septizemia eragin zion umea zenean, beso eta hanketan kalteak eraginez. Koman ere izan zen, baina onik atera eta, mugak muga, bere gorputza beharretara egokitzen ikasi du.

Hanketako protesiekin ere oinez ibil daiteke Elortegi. Azkenaldian "nahi baino gutxiago" ibili dela dio, aditzera emanaz alferkeriagatik izan dela gehiago. Hala ere, batzuetan zauriak izaten dituela kontatu digu eta ondorioz murriztu egiten dela bere independentzia.

Elortegik txikitatik ezagutu du bere gorputza horrela eta erabiltzen ikasi du. "Gauza desberdinak egiteko eskuko puntu desberdinak erabiltzen ditut eta mugimendu desberdinak egin. Bazkaltzeko lagungarriak jartzen ditut, baina idazteko, adibidez, inoiz ez dut jarri nahi izan eta nire eskuekin idazten ikasi dut. Sorbalda, kokotsa, ahoa eta hainbat euskarrirekin batera egiten ditut ekintzak".

Baina dena ez dago bere esku. Espazio publikoan ezin du nahi bezala mugitu: "Ulertzen dut ezaugarri asko hartu behar liratekeela kontuan, behar desberdinak baitaude. Gorpildun aulkian dagoe-nak autobusa har dezake, baina trena ez. Ni autobusera igo naiteke, baina zailtasunekin; eskaileraren beheko mailatik lurrera tarte handia dago batzuetan eta nik ez dut orekarik. Zutik gaudela kontuan hartuta, kartera irekitzeko zailtasunak ditut euskarririk ez dudalako lagungarri, eta

jendea eta txoferra nire zain egoten dira... Txartelarekin hobeto moldatzen naiz".

Baliabide fisikoez gain, jendarteak aniztasunean bizitzeko dituen zailtasun eta estereotipoen aritu gara hizketan. Horretaz kontziente, zera galdetzen dio askotan bere buruari: "Ni zergatik ez ninduten desberdin tratatzen?". Airean geratu da galdera.

Elortegiren hitzetan, bizi duena tabua da neurri handi batean, eta horrek zaildu egiten du harremanak naturaltasunez garatzea, konfiantza hartu bitartean bederen, hasiera batean beste aldera begiratzen delako: "Haurrak askotan nire eskuei begira geratzen dira eta hurbiltzeko zain geratzen naiz", dio barrez. "Horretaz hitz egiten amaitzen dugu. Errespetuz bada, finean, naturalena da eta niretzat ez da batere arrotza".

Familia, lagunak eta irakasleak beti izan ditu ondoan. Gakoa "gehiagizko" babesa ez ematea izan dela azpimarratu du: "Irakasleak eta gurasoak beti egon dira kontaktuan eta ea zer moduz nengoen galdetzen zidaten, baina uneoro gainean egon gabe. Ez zuten nire lana egiten edo ezintasuna aipatzen. Hortaz, ez naiz inoiz desberdin sentitu". ■

MASA TURISMOARI AURRE EGITEKO IDEIAK BARTZELONATIK

Kataluniako hiriburuan ere ez dute errezeta borobilik. Baina, gutxienez, gu baino denbora gehiago izan dute galderak egin eta erantzuten ahalegintzeko.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

“Desazkunde turistikoa: masa turismoari alternatibak ekonomia sozial eraldatzailetik”. Hala du izenburua arreta eman digun mahai-inguruak. Metroan ordu erdiko bidaia eginda heldu gara Bartzelonako Sant Antoni auzoko Fabra i Cots fabrika ohira. Asteburu osorako dozenaka ekimen antolatu dituzte bertan, Fira de la Economia Solidaria delakoaren baitan. Igande goiza bada ere, jende mordoxka dabil hara eta hona, azokako postuei beha. Denboraz larri gabiltza, eta zuzenean hartu dugu guk prestatu duten aretorako bidea, postuei begira hasteko tarterik gabe.

Lau euskaldun elkartu gara beste berrogei bat lagunena artera. Bi donostiar eta bi zumaiar. Ez da kasualitatea. Lehenago ere ezagutzen dugu elkar eta badakigu kezka bertsuek ekarri gaituztela hona: Donostian 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren aitzakian biderkatu den turista uholdeak izututa etorri gara

batzuk; besteak *Game of Thrones* telesail arrakastatsuen grabaketek Zumaian izango duten eraginak beldurtuta. “Bartzelonan urteak dira antzeko arazoei aurre egin behar dietela. Izango dute gure gaitzenezako konponbiderik?”, galdetu diogu elkarri.

Laster zapuztu zaigu masa-turismoa frenatzeko errezeta borobilarekin etxeratzeko itxaropena. Nahikoa izan da antolatzaileetako baten lehen hitzak entzutea: “Mahai honetan gaudenok, parean eserita zaudetenok beste zalanza ditugu”. Talde txikitik banatuko gaituzte, eta guri ere iritzia ematea tokatuko zaigu. Ez genuen halakorik espero.

Erantzunak integrala izan behar du

Aurretik ordea, sarrera labur bana egin digu (ustezko) hizlari bakoitzak. Hasieran auzo gutxi batzuetan gertatzen zena apurka ingurukoetara zabaltzen ari dela gogorarazi du Daniel Pardo Bartzelonako



auzoen asanbladako kideak; Universitat Autònoma de Barcelonako Filka Sekulova irakasleak turismoaren baretzea desazkunde orokorrako baten eskutik soilik etor daitekeela; eta jasangarritasunarena sistemak oso erraz barneratzen duen kontzeptua dela salatu du udaletik ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko ahaleginean diharduen Jordi Viak. “Eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzeko bozkarioarekin ez bada, turismo arduratsua proposatzeak ez du ezertarako balio”.

Katalunia barnealdeko herrietan turismo “arduratsua” eskaintzen duen Fent Pais kooperatibako Nil Camprubi izan da sarrera egiten azkena. Txanponaren beste aldeak erakutsi digu; saioak piztuko dizkigun kontraesanak asko izango direla iragarritz bezala. “Gaiari herrialde ikuspegitik begiratu behar zaio, eta turistak hirietatik atera. Bartzelonarentzat arazoa dena, gero eta prekarioagoa den landa-inguruarentzat konponbidea izan daiteke”.



*Manifestazioa Bartzelonako Gràcia auzoan
hotel berriak eraikitzearen kontra.*
VICTOR SERRI / LA DIRECTA

Airbnb: ardiz jantzitako otsoa

Taldetan banatu gara segidan. Halakoe-tan ohikoa den zalantzen ondoren seikote batean sartu gara bi donostiarrak. Katalanez egiten ez dakigula, baina ez dugula ulertzeko arazorik, hori izan da gure lehenengo azalpena. Baina hau bai, kasualitatea izan da, kataluniar bakarra dago taldean, eta hark ere nahiago omen du gaztelaniaz egin. “Nola irudikatzen duzu Bartzelona askoz ere turista gutxiagorekin?”. Horixe seion artean erantzun behar dugun galdera.

Hitz-aspertuak, hala ere, beste bide bat hartu du. Hogeita bost urtez turismoaren sektorean lan egin duela kontatu digu bartzelonarrak, eta diagnostiko konpartitu baten bila hasi gatzazkio galdezka. Berehala, etxebizitza partikularrak aldizka alokatzeko erabiltzen den Airbnb hartu du hizpide. “Hasiera batean ekonomia kolaboratiboaren eredu txalogarria zen; alternatiba, as-

koren ahotan. Orain aldiz, agentziek eta etxe bloke osoak dituzten pertsonak dirutza biltzeko erabiltzen duten tresna bihurtu da”. Gaur gaurkoz, Airbnb-k ohe gehiago ditu Bartzelonan bertako hotel guztiek baino. Etxebizitzaren prezioan eta turisten uholdean kate handiek besteko eragina duela gehitu du Jaengoa den neskak, eta arriskutsua dela, herri mugimenduetatik hotelei bakarrik begiratzen diegulako. Ez dio inork kontra egin.

Inbertsioak nola uxatu

Egokitu zaigun galderari taxuzko erantzunik eman gabe harrapatu gaitu antolatzailearen abisuak. “Amaitu da txanda”. Interesgarria egin zaigu ordea beste taldeetan hausnartu dutena entzutea: Ekonomia sozial eraldatzailetik bestelako lan eredu eta sektoreak indartu behar direla, ahoz ahoko kontzientziazioa oraindik ere ezinbestekoa dela, ho-

tel gehiago eraikitzea debekatu beharko litzatekeela... Eta ideia gehiago ere bai.

Orduan hasi da iritzi dantza soltea. Turismoaren arazoa kuantitatiboa edo kualitatiboa den galdetu du gazte batek, eta azkar erantzun dio auzoen asanbladako kide Daniel Pardok: “Gaur gaurkoz jende eta inbertitzaile gutxiago etor dadin lortzea da gure helburu nagusia”. Nola egiten da hori ordea? Denok buruan genuen galdera erantzun du mahai-inguruari sarrerara eman dion hizlariak berak: “Modu bakarra dago: erakundeetatik eta herri mugimenduetatik eraginda lortu behar dugu turismora bideratutako inbertsioak ez errentagarriak izatea”.

Haserre tonu nabarmenarekin hartu du hitza emakume heldu batek. “Hemen berriketan gauden bitartean auzoak etengabe eta modu basatian ari dira eraldatzen. Badugu benetan irabazteko aukerarik? Agian bai, baina hitz politak utzi eta neurriak hartu behar ditugu orain, neurri ausartagoak”. Erakundeetatik orain egiten dena baino gehiago egin daitekeela gehitu du, eta hezkuntzan ere sustatu behar dela jarrera kritikoa, kutsadura edo birziklapenaren gaiarekin egin izan den bezala.

Erakargarritasunaren paradoxa

Irribarre okerra piztu digu zutik jarrita hitz egin duen hurrengoak: “Paradoxa zera da, hemen egiten ari garen mahai-inguru honek berak ere, interes turistikoa pizten duela”. Eszeptikoaren paperean jarraitu du gero: “Ez ote gaude oso bakarrik honetan? Baditugu erreferenteak? Hiri gehienetan hemen garaitu nahi dugun hori desio dute”.

Iritsi bezainbeste zalantzarekin eta burumakur joango ginela pentsatzen hasi gara, baina orduantxe iritsi da, saioa borobiltzeko, Jordi Viaren txanda. “Ez gara autoengainuan eroriko. Parean dugun munstroaren tamaina zein den onartu behar dugu, mila kontraesan ditugula... Baina duela hogeita bost urte martziano hutsak ginen ekonomia sozial eraldatzaileaz hitz egiten genuenak, eta begira zenbat gauden gaur hemen, azoka honetan”. Badago egin daitekeen bide bat, baditugu zentzudunak diruditen pista batzuk, baina espero dezagun ez dugula guk ere beste hogeita bost urte itxaron beharko. Lehen baino lasaiago, isilean hobeto pentsatzen delako-edo, ideia horri bueltaka egin dugu metrorako bidea. ■

Kolonbiako Gobernuak lehen kolpea ELNri mahaian eseri aurretik

Gobernuak bake elkarrizketen mahaia ezartzea atzerarazi du herri mugimenduei azpijokoa iruditu zaien arrazoi batekin. Gizartearen parte-hartzea mugatzea lortu du momentuz. ELNrentzat berezibiko aldagia da.



Lukas Barandiaran San Roman

Kolonbiako Gobernuak kolpea eman da indartsu hasi ditu bake elkarrizketak Nazio Askapenerako Armadarekin (ELN gaztelaniazko sigletan). Berez, bi eragileok adostua zuten bake negoziatzioen mahaia Ekuadorko hiriburu Quiton urriaren 27an ezartzea, baina ez da horrela izan. Aste horretan bertan, gobernuak baldintza bat ezarri zuen elkarrizketei hasiera emateko: ELNk atxikita daukan Odin Sanchez paramilitar ohia askatzea. 27an oraindik ez zegoenez aske, gobernuak elkarrizketen hasiera etetea erabaki zuen egunean bertan.

Ondorengo egunotan, ordea, Kolonbiako bigarren gerrilla indartsuenak adierazi du konpromisoak betetzen ari dela eta urriaren 6an gobernuarekin egindako akordio humanitarioetan ez zela horrelakorik zehazten.

Akordioen edukia zabaldua, adierazi dute 27 bitartean atxikitako bi pertsona askatzea adostu zutela –jada bete zuten–, eta behin akordioak hasita beste hirugarren bat, izenik zehaztu gabe. Zehazki Odin Sanchez askatzea, beraz, ez zegoela akordioetan.

Haatik, gobernuak ongi arduratu da gizaratean kontrako ustea sortzeaz, eta iritzi publikoaren zilegitasuna bereganatu duela uste du askok. Ordutik, bi aldeak “mikrofono gerran” dabilta, bata bestearek aurpegiratu ez duela emandako hitza bete. Hala ere, bake elkarrizketak hasten direnean –bi aldeek adierazi

dute irmoki asmo hori– ez dira bertan izango egunotan mundu osotik heldutako medioak, eta batez ere, Kolonbiako herri mugimenduetatik heldutako hamarnaka kide. Aurreikus daiteke elkarrizketen hasierak ez duela horrenbeste oihartzunik edukiko, eta ez dute Kolonbiako herri mugimenduen babesa eta parte-hartzea edukiko.

Parte-hartzea hitz gakoa da ELNrentzat. Gerrilla honek ez du bere burua inoren abangoardia armatutzat, ez du inor ordezkatzeko. Kolonbiaren eraldaketa Kolonbiako herriak berak egin behar duela uste du, eta elkarrizketa hauek “herriari berari eskaintzen” dizkio eraldaketa tresna gisa.

Gobernuarekin adostutako elkarrizketen agenda ia edukiz hutsik dago: sei puntuak parte-hartzea, bakerako demokrazia, bakerako eraldaketak, biktimak, gatazkaren amaiera eta gauzatzea dira. Lehen hiruak gizarateak berak bete behar ditu, horregatik du berebiziko garrantzia parte-hartzeak.

52 urteko etorria

ELN 1964ko uztailaren 4an sortu zen Kolonbiako Santander departamentuan. Kubako iraultzak eta Che Guevarak eragin handia izan zuen eskualde horretako sindikatu eta ikasle mugimenduetan. Herri borrokaren ezinbesteko osagai izango zuen jarduntzat ulertu zuten gerrilla.



Eragin sobietarretik eta txinatarretik aldentuta, Kolonbiaren askapen nazionala zuten helburu. Horretarako, AEBen inperialismoa eta horiekin oligarkia nazionala borrokatzen zituzten. Erasora jotzeko helburu esplizituarekin sortutako lehen gerrilla garaikidea izan zen Kolonbian, FARC-EP, esaterako, nekazarien auto-defentsa bezala sortu baitzen.

1974an sortu zen, oster, egungo ELN-ren hazia. Urte hartan, ia gerrilla guztia ezabatu zuen armadak. Ordura arte, egitura hierarkiko zurrunezko gerrilla, eta berau buru-belarri elikatzeko egitura urbanoak osatu zituzten. Porrot militarra eta egituraren harira sortutako ezinegonak eraginda, estrategia aldatu zuten.

Indar guztiak arlo militarrean ezarri beharrean, hiri eta herrietan talde eta egitura politiko-militar ugari sortzearekin ziota. Hierarkia militar zentralistatik egitura federalagoetara igaro ziren, eta gerra fronte bakoitzak autonomia handia izango du, FARC-EPk egitura bertikalak osatu zituen bitartean.

Horrenbestez, FARC-EPren asmoa, botere nazionala eta estatua bere osotasunean eskuratzeko nekazal guneetan



indar militarra sendotzea izan da. ELNk, berriz, hiri eta herrietako oinarri zabalaren lan politiko eta sozialari garrantzi handia eman dio, tokian tokiko herri-botere eta egitura autogestionatuak osatzen hasi ziren, estatua ordeztzeko.

Negoziatzeko garaia

ELN estatuaren kontra azaldu zen erabat 1991ra arte. Urte hartan, uste sendorik gabe, eta FARC-EP eta EPL gerrillekin Simon Bolivar Koordinakunde Gerrillariaren parte zela, Caracas-Tlaxcala bake elkarrizketak hasi zituzten gobernuarekin. Urtebete iraundako elkarrizketa horiek, ez zuten arrakastarik izan.

90eko hamarkadan zehar, FARC-EPk eta ELNk bere une gorena bizi izan zuten. Estatua kinka larrian jarri zuten, eta askoren ustez, gerrillen garaipena benetako aukera bilakatu zen. Urte guzti horietan elkarrizketa saioak eduki zituzten Ernesto Samper (1994-1998) eta Andres Pastranaren (1998-2002) gobernuarekin.

1996an, ELNk Batzar Nazionalaren ideia proposatu zuen: “Gobernua, gerri-lla eta gizartearen arteko elkarrizketak.

Bertan, estatua eta gizartea demokratizatzeke eraldaketa politiko eta sozialak zehaztuko dira”.

Idea horren inguruan bildu ziren Samperren gobernuarekin 1998an Madrilen eta Rio Verden, Antioquian. Viannako Jauregiko aurre-akordioa lortu zuten Batzar Nazionala zehazteko. Espainiako ABC egunkariak, ordea, akordioa filtratu, eta ez zuen aurrera egin.

Samperrekin hasitakoa Pastranarekin jarraitu zuten. Geneva, Caracas eta Habanan bildu ziren lau urte horietan, baina ez zuten etekinik atera. Garai hartan FARC-EPren indar armatuak bigarren mailako aktore bezala uzten zuen ELN, eta gainera, paramilitarismoa gogor kolpatzen hasia zen jada.

Alvaro Uribe ultraeskuindarraren gobernuarekin (2002-2010) kontaktuak eten zituzten urte batzuetan. Uribek gupida gabe jo zuen gerrillen eta adierazpen ezkertiar ororen kontra. Gainera, AEBekin *Kolonbia Plana* sinatu zuten hamarkada hasieran. Armada modernizatua bonbardaketak egiten hasi zen gerra modu nagusi bezala, eta aurreko hamarkadan lortutako aurrerapena galdu

zuten gerrillek. Hala ere, 2006an bake prozesu bat hasia lortu zuten. Beste behin ere, baina, elkarrizketak emaitzarik gabe amaitu ziren bi urteren ostean.

Hasi da azken lehia

Orain dela hogeitazuen indar militarren herenarekin heldu da ELN Juan Manuel Santosekin negoziatzera. 2014ko urtarrilean hasi zituzten lehen kontaktuak, eta aurtengo martxoaren 30ean iragarri zuten elkarrizketen fase publikoaren hasiera. Kalkulatzen denez, 2.000 eta 1.500 gerrillari artean ditu egun. Hala ere, ELNk duen indar militarretik harago, herri eta hirietan osatutako sare politiko zabalean dago bere indar nagusia. FARC-EP, 2000. urtean ohartu zen horren garrantziaz, eta ordutik arlo horretan lanean jardun duen arren, nabarmena izan da Habanako negoziazioetan gizar-teak eta herri erakundeek izandako parte-hartze eta eragin mugatua.

Bestealde, ELNk adierazi izan du ez duela ulertzen gatazka logika militar edo alderdikoian. Gobernuak egiten duenaren kontra, bere kezka nagusia ez da bere indar militarrek gobernuarengan duen presio ahalmena; ezta ELNk berak edukiko duen etorkizun politiko eta juridikoa ere, gizarte osoaren eraldaketa baita bere helburua. Horregatik da horren zaila gobernuarentzat gerrilla horrekin negoziatzea, beste logika horietatik ihes egiten duelako.

Zentzu horretan uler daiteke ELNk parte-hartzeari ematen dioen garrantzia. Hain zuzen, horixe da gobernuari gutxien gustatzen zaion arloa. Horregatik luzatu da hainbeste ELNrekin elkarrizketaren isilpeko fasea, parte-hartzearen puntuak gobernuan sortzen duen errefusagatik.

Momentuz, gobernuak jada eman dio lehen kolpea parte-hartzeari. Urriaren 27an Quitora joan ziren herri mugimendu asko ezingo dira bertaratu mahaia ezartzen duten egunean. Hala ere, jada hasi dira mugitzen eta azaroaren 3an Bogotan egindako ekitaldi batean adierazi dute martxan jarri dutela Bakerako Herri Mahaia, gizartearen parte-hartzerako mekanismoa. Urriaren 27an Quiton zeuden herri mugimenduek emandako prentsaurrekoan ere argi adierazi zuten: “ELN eta gobernua hemen ez badaude ere, Kolonbiako herriak jada ezarri du elkarrizketa mahaia gure presentziarekin. Beren zain gaude”. ■

Udalerri euskaldunak

MEDIKUEN ETA PEDIATREN LAUTIK BAT EZ DA GAI EUSKARAZ EGITEKO

UEMAk (Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak), erakundeak berak biltzen dituen 76 udalerrietan familia eta larrialdi medikuen eta pediatren euskara gaitasuna neurtu du. 76 udalerriak Hego Euskal Herrian daudenez, Osakidetza eta Osasunbideako profesionalak dira denak. 289 profesional zenbatu dituzte UEMAko udalerrietan. 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. Familia eta larrialdi medikuen %22 da gai ez dena eta pediatren %35.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Profesionalen euskara gaitasuna jakiteko UEMAk Osakidetza eta Osasunbideako plantillak begiratu ditu eta langileok haien lanpostuetan zein hizkuntza eskakizun dituzten eta hori egiaztatuta duten ala ez aztertu du. Gerta daiteke ordea (eta alboko taulan gertatzen dela ikusiko duzue), hizkuntza eskakizuna izan eta euskaraz aritzeko gaitasunik ez izatea, eta alderantzizko adibideak ere badira, badira hizkuntza eskakizuna eduki ez arren euskaraz egiteko gai diren medikuak. Egoera horiek xehetasun gehiagoz jakiteko asmoz, udalerrietako euskara teknikariek, politikariek, osasun etxeetako langileekin eta herri-tarrek hitz egin dute.

2013an ere egin zuen ikerketa UEMAk eta emaitzak alderatzeko aukera izan du. Eneka Maiz Etxarri-Aranazko alkate eta UEMAko zuzendaritzako batzordekideak honela baloratu du bilakaera: "Ordudunik osasun etxe batzuetan egoerak hobera egin badu ere, beste batzuetan okerrera egin du edo bere horretan

irautean du". Berezi larrizat ditu udalerrian profesional guztiak (gehienetan profesional bakarra dute, edo medikua edo pediatra) euskaraz egiteko gai ez diren adibideak.

Oporretan zer?

Eskuineko orrialdeko taulan agertzen diren kolore berde-gorriek profesionalek hizkuntza gaitasuna duten ala ez adierazten dute, eta alboko oharak irakurrita jakin daiteke, eskakizuna albo batera utzita, medikua edo pediatra euskaraz egiteko gai den ala ez. Hala ere, horrek ez du esan nahi, demagun Etxalarren, urte osoan pediatra euskalduna dutenik. Zer gertatzen da ordezkapena egin behar denean, esate baterako medikua oporretara doanean? Bada behin baino gehiagotan ordezkioak euskara ez dakitenak izan dira. Joan den udan Azpeitiak, Segurak eta Aulestik horrelako egoera salatu zuten eta tankera berean ziren udalerriak dozenaka ziren.

Jubilazioa da beste kezka iturri bat.

Batetik, hurrengo medikua euskalduna izateko aukera da, eta bestetik, okerrera egiteko arriskua dago; badoana euskalduna da eta etorriko dena ez jakin. Horregatik, UEMAk eskaera zehatza egiten die Osakidetza eta Osasunbideari, "udalerri euskaldunetan egingo diren kontratazio berri guztietan, behintzat, profesional euskaldunak kontratatu daitezela".

Nafarroan hizkuntza eskakizunak urri

Mediku euskaldunak eskualdeko kokatzen ditu Nafarroako Gobernuak. Alabaina, herritarrak ez dira pozik, horrek ez duelako bermatzen arreta euskaraz jasoko dutenik. Gobernuak 100 lanpostu atera ditu lehiaketa publikora eta horietatik hamabik dute hizkuntza eskakizuna.

Taulan duzue UEMAren ikerketaren emaitza. Ez dituzue mankomunitateko udalerri guztietako datuak aurkituko, baizik eta zerbitzua euskaraz emateko arazoak dituzten osasun etxeak. ■

ANBULATORIOAN ZERBITZUA EUSKARAZ KOLOKAN (2016)

OSAKIDETZA

	Medikuak	Pediatrak
Aduna (Villabonakora)		(1)
Ajangiz		
Alegia	—	
Altzaga eta Arama (Ordiziara)		
Amezketza	(2)	—
Aramaio	—	
Artea	Plaza esleitu gabe	Ez dago pediatarrik
Azpeitia (osasun zentroa)		
Azpeitia (larrialdi zerbitzua)		—
Beizama	Azpeitira eta Alegiara doaz	Alegiara doaz
Bergara (osasun zentroa)		(4)
Bergara (larrialdi zerbitzua)		—
Bermeo (osasun zentroa)		
Bermeo (larrialdi zerbitzua)		—
Deba		(5)
Dima	(6)	—
Elgeta	(7)	Bergarara doaz
Irura	(8)	—
Legorreta	Plaza esleitu gabe (9)	Alegiara doaz
Lekeitio (larrialdi zerbitzua)		—
Lizartza	(10)	—
Mallabia	(11)	—
Markina-Xemein	—	(12)
Munitibar	(13)	—
Mutriku	Plaza esleitu gabe (14)	Plaza esleitu gabe (15)
Oiartzun	(16)	(17)
Ondarroa (osasun zentroa)	(18)	—
Ondarroa (larrialdi zerbitzua)		—
Oñati		(19)
Orendain, Ikaztegieta eta Altzo	Alegiara doaz	Alegiara doaz
Tolosa (osasun zentroa)		
Tolosa (larrialdi zerbitzua)		—
Urbil		(20)
Zarautz		
Zumaia	(21)	(22)

OSASUNBIDEA

	Medikuak	Pediatrak
Araitz		
Arantza		
Areso	—	
Basaburua	(23)	
Baztan (Elizondo eta Irurita)	(24)	
Bera	(25)	(26)
Etxalar	(27)	
Goizueta	—	
Igantzi		
Larraun	(28)	
Leitza	—	

Hizkuntza eskakizuna dutenak. Hizkuntza eskakizuna ez dutenak.
— ez dago zerbitzurik edo euskaraz ematen da zerbitzua.

Oharrak:

- Adunako haurrak bi pediatarrengana joaten dira, eta horiek badute gaitasuna euskaraz komunikatzeko.
- Euskaraz ulertzen du. Jubilatzeria doa.
- Bietako bat euskara ikasten ari da, eta lehen hizkuntz eskakizuna du.
- Batek euskaraz badaki.
- Adinagatik, salbuetsita dago. Euskaraz zerbait ulertzen du, baina ez da komunikatzeko gai.
- Bigarren hizkuntza eskakizuna du, baina ez du egiten euskaraz. Ordezkapenen bat salbu, 80 urtean ez dute mediku euskaldunik izan Diman.
- Euskalduna da.
- Euskalduna da.
- Behin-behinean, mediku euskalduna.
- Euskalduna da.
- 2017ko otsailean jubilatuko da.
- Ulertu egiten du.
- Ez du egiten euskaraz.
- Momentuz euskalduna da ordezkapena egiten ari den medikua.
- Familia mediku euskalduna pediatarren lanak egiten ari da.
- Erdalduna dena jubilatuko da, euskalduna sartu da haren ordez, baina esleitu gabe dago plaza.
- Hizkuntz eskakizuna duenak ez du asko erabiltzen euskara, eta zailtasunak ditu.
- Gai da euskaraz komunikatzeko.
- Batek lehen hizkuntz eskakizuna du.
- Ulertzen du euskaraz.
- Badaki euskaraz.
- Euskaraz hitz egiteko gai da, zailtasunak dituen arren.
- Euskalduna da medikua, baina jubilatzeria doa.
- 13tik 7 euskaldunak dira.
- Oinarrizko komunikaziorako gai da.
- Berak, Etxalarrek, Igantzik eta Arantzak pediatria bera dute. Esaldi solteak soilik egiten ditu euskaraz.
- Gai da oinarrizko komunikaziorako.
- Mediku berri bat hasi da lanaldi erdian, eta erdalduna da. Printzipioz, haren postua ez dago Osasunbideako plantillan sartuta, hau da, behin-behineko behar bati erantzuna emateko neurria da kontratazioa.

Iturria: UEMA

Sagarraren emana jaso



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Nork ez du sagarrondo bat etxe inguruan? Euskal Herri hezean bizi zaretenok, behintzat, harantzaxeago edo honantzaxeago, urrutira gabe izango duzue, sagardi bat ez bada, fruitu arbola etxekotu horren aleren bat. Etxekotua, ez alferrik deitzen zaio *Malus x domestica*. Eta nonbait etxekotua izan bada, hori geure etxea da, geure kulturaren lurra.

Sagarrondo bat inguruan duenak badaki zenbateraino emankorra den arbola hori. Bera sasoian bada, urteko eguraldia sasoian izan bada, lurra sasoian izan bada, sagar ale ezadetsuak eta sasoikoak latz emango ditu; dena dela, aleak eman edo ez erabakitzeke arbolak duen arrazoi nagusia, sasoiekin zerikusirik ez duena, gogoia izatea da, lan hori hartzeko galez egotea. Gogo hori ez duenari "arbola alferra" deitzen zaio, baita arra ere. Zergatik ote? Eman emeak ematen baitu. Eta ematen ez duenari egurra ematen zaio, esklaboei bezala: lepoa moztu eta beste buru bat jartzeko eztitu edo txertatu, kimatu, inausi eta ehunka zauri egin... Emango du bai! Beno, torturen hori beste upeleko sagardoa da eta hurrengo baterako utziko dugu.

Hobe dugu sagardoari heltzea. Sagarra, badenean lepo izan ohi da, ugari. Eta sagastian sagarretan igeri egin daiteke. Fruituak heltzen hasten direnean, zaila



Euskal Herri hezean bizi zaretenok urrutira gabe izango duzue, sagardi bat ez bada, fruitu arbola etxekotu horren aleren bat.

ISABEL-CC BY SA

da arbolaren emanari eustea eta segitzea. Batzuk fresko, bere horretan jango dituzu, baina beste zerbait egin beharko duzula laster duzu buruan. Alferrik galdu gabe, nola eutsi sagarrei?

Hasteko, sagarrak bere horretan gorde, toki ilun, fresko eta egurastu batean. Sagarrak xerratu eta lehortuta ere jaso daitezke; baita zatitu eta potoretan edo

izozkailuan ere. Sagarra likido eginda, adibidez. Sagarrak jo, dolarean mendetu eta sortutako muztioa bera jaso daiteke urte osorako bere gozo horretan pasteurizatuta, irakinda sagardo gisara eta areago irakinda ozpina. Marmelada, dultzea, konfitura, erreximenta, jelea... Gozagarria, egosialdia eta birrintzea zenbatekoak diren. Urte osoa sagar urte. ■



*Azaroaren
15etik
aurrera*

**Iparraldeko errealitatea
bertatik bertara**

Entzun ANTAXETA2 105.8 FM

*Euskal Herrikoa
eta
euskara*

PATXI HUARTE LARRABURU "ZALDIEROA"
ALTZA PORRUZ:

"Jakobita nintzen Jakobitak ezagutu aurretik"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Baratzegintzaz dakizun guztia zortzi orrialdetan sartu duzu *Altza Porrun*. Asko-asko ere ez zenekien orduan, ezta?

Bada, ez. Gutxi dakit eta gainera daki-dan apurra segituan ahazten dut. Gogoratzen naiz amari galdetu niola baratxuriak nola erein behar ziren eta berak erantzun. Handik bi egunetara baratze-tik deitu nion, baratxuriak eskuan, ea pikua behera zen edo aldrebes. Desastre!

Zerk elkartzen ditu Faltzes, Aranzadi, Lezo, Abaurregaina, Twitter, Etxauri eta Txantrea?

Hori da nire bizitzaren mapa, edo "lutelestia" (*Txikitako Mundu osoaren lutelestia* liburua gogora ekarriz). Nire geografia ez da mundu osoarena, mapa txikiagoan bizi izan naiz ni.

Baratzeak, autobiografikoa izateaz gain, ligatzeko ere balio duela diozu...

Beno, txiste moduan jarri nuen, baina egia da. Fun-tsean, zure baratxera etor-tzen denak izango duen inpresioa oso ona da: "Aiba! Ze polita!". Nos-ki: badira fruituak bazkari oparoak

egiteko edo errezeta mundialak osatzeko, eta beraz Pavloven txakurren antzera, sartu orduko listua produzitzen hasten dira bisitariak eta plazerarekin lotzen zaituzte orduan eta konturatzen dira zurekin ez direla gosez hilko eta... Beno... Hortik afaria gehi ohea ideia-aste-bete dago!

***Altza Porrun* parte hartuz "Jakobita lurza-leen sektarekin" egin duzu bat. Ez al du horrek gehiago erotuko Zaldieroa?**

Ni beti izan naiz Jakobita. Beste planetan bizitza bilatu beharrean bertako bizitzarekin flipatu egin dut beti. Deigarriagoa egiten zait kalabaza bat nola hazten den ikustea Marten bakterio batzuk aurkitzea baino. Sistema osoa zirrarragarria da: nola kalabazak ura metatzen duen, nola guk gero kalabazaren propietateak hartzen ditugun, hondakinak konpostan, konpostetik lurra, lurretik kalabaza. Izugarria da! Jakobita nintzen ni Jakobitak ezagutu aurretik.

Zer iruditu zaizu Asiskok egi-leen aurkezpenean egin dizun barazki-karikatura?

Oso ona. [Eta segidan *Altza Porru* liburuaren bila joan da karikatura gogoan ez zuelako] Hara! Piper horia.

Oso ona. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiaz, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

t @bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Azaroak 23: Larraul

19:00etan Kultur Etxean, *Bizi Baratzearen* aurkezpene eta kontsultategia.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

SKAKEITAN TALDEA IKUSTEKO SARRERAK

3

“Galera” disko berriaren aurkezpena Durangon

Skakeitan taldeak badu zeresanik oraindik. *Orekariak* (2014) lana argitaratu eta bi urte beranduago, badator *Galera* (2016), Higain estudioetan Haritz Harreguyren gidaritzapean grabatu eta nahastutako estudioko lan luzea, eta abenduaren 2an ikusiko du argia Durangoko azokan. Hasieratik nabari dira lan honek dakartzan aire freskoa eta espermentaziorako ausardia, doinu elektronikoen presentzia, rocka, doinu jamaikarrak, hip hopa eta beste hainbat iturritatik edandako sorkuntza oparoa agerian utziz. Enbor beretik irtendako bederatzik adarrek osatutako zuhaitza dugu *Galera*, ilargipeko suetan dantza egin, eskapareak suntsitu eta ildo berriak arakatzeko deialdia. Abentura berrian bidailagun izan dira hainbat kolaboratzaile. ARGIAkoen artean Durangoko Plateruenean emango duten aurkezpen kontzerturako sarrera bikoitz zozketatuko ditugu hilabete honetan.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



SKAKEITAN MUSIKA TALDEA

www.maukamusik.com
promo@maukamusik.com / Tel.: 651 708 589

#musika
 #kulturgintza

Hilabeteko honetako sariak

1



Tribial Feminista mahai jolasa
2 joko

2



Simaurren konpostajea
2 liburu

3



Skakeitan taldearen abenduak
 Seko Durangoko kontzerturako
5 sarrera bikoitz

4



Altza Porru liburua
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

XABIER GANTZARAINEN SAIL BERRIA

Artista jendearentzat berri onak ARGIA



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Berriak ditugu ale honetan. Konturatu zara, irakurle? ARGIA ez gaude deskantsurik hartzeko; sail berri bat estreinatuko dugu hurrengo asteko orrialdeetan. Xabier Gantzarain ezagun egiten zaizu? Bera da artikulu sortaren egilea, eta kulturako atalean ikusi ahal izango duzu hemendik aurrera bi astez behin. Oso azaletik kontatuta, bere artikulu bakoitza Euskal Herriko artista baten artelanean oinarrituko da. Hori da Gantzaraini berari deitu aurretik nekiena, eta bete-lan pixka batekin artikulu hau egiteko ziurrenik nahikoa izango nuen informazioa, baina nahiago izan dut berak azalpen txiki batzuk emanda nik zuei ere zerbait gehixeago kontatzea.



Artelana izango da aktore nagusia, eta hori oinarri hartuta landuko ditu artista bera, lanak pizten dituen sentimenduak eta abar. Papereko bertsioan irudia izango da protagonista, erakutsi nahi baita artelanaren beraren edertasuna; eta sarean irakurri ahal izango dugu testu luzeagoa. Pintura eta eskultura izango dira Gantzarainen jo-puntu garrantzitsuenak, eta Euskal Herriko artisten lanak ARGIA erakustea du helburu. Ez da, ordea, kronologia aldetik behintzat artearen historia klase bat izango: aurkituko ditugu XX. mende hasierako artistak bezala gaur egungoak, baina egilearen iritzira denboran aurrera eta atzera ibilita. Arteak "eskemak mugitzeko" balio duela esan digu Gantzarainek, eta berari interesgarri zaizkion obrak aztertuko dituela, edo ezagun samarra den artista baten lana, edo oso ezaguna den artista baten obra ezezaguna. Dagoeneko hilda dauden pintore edo eskultoreen lanak arte katalogoetatik aztertzeko asmoa du, baina gaur egungoak direnen kasuan beraiekin elkartuta egingo du analisia eta papererako irudiaren aukeraketa.

Landuko dituen artelanen eta artisten izenak galdetuta izkin egin dit egileak, irakurle, eta hurrengo aleko Bixente Ameztoirekin geratu beharko duzu, ostean etorriko denaren zain. Ni ere halaxe egongo naiz. ■



Euskarabildua jardunaldiak

Euskarabildua jardunaldiak egin genituen azaroaren 10ean, Ametzagaña Taldeak antolatuta. Herri mugimendu hauetako kideek, beren ekintza arrakastatsuenen gako komunikatiboak azaldu zituzten: Egia Euskaraz, Mugimendu Feminista, Errigora, Kataluniako Compacto kooperatiba, eta ANC. Denek partekatutako ideietakoak izan ziren mezu argiak ematea dela gakoa, eta diskurtsoa deskafeinatzeak ez duela jende gehiago aktibatzen. Prozesua elkarlanean egin behar dela, harreman zuzenetan oinarrituta eta tokian tokikoa. Islandiako konstituzioa modu parte-hartzaile eta irekian idazten aritutako kideak, berri, herri-tarren indarrak zer pentsa eman zigun. argia.eus webgunean dituzu kronikak.



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Bidali helbide honetara (harpide@argia.eus) alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta me-rezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

AGENDA

Azaroa ARGIA izango da Gasteizen egitaraua (ekitaldi denak Oihaneder Euskararen Etxean izango dira, 19:00etan):

- Azaroaren 16an, Garoña behin betiko itxi? Demokrazia energetikoa eta energia sozialak. Solasean Aitor Urresti (EHU) eta Patxi Alaña (Garoñaren Kontrako Foroa).
- Azaroaren 22an Zitzadak dokumentala eta solasaldia: Zigor Olabarria (Lurralde Askea) eta Saioa Iraola (Bilgune Feminista).

JAINKOEN LURRALDE GALDUA, GAURKO POBREEN ETXE



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazuastabarrena

Egipto, K.a. 2500. V. dinastiako faraoi Sahurak lehen espedizioa bidali zuen Punt erresumara, idatziz jasotako lehen behintzat. Hurrengo dinastiako Pepi II.ak ere itsasontzi bat bidali zuen Egiptoar Inperioaren hego-ekialdean omen zegoen lurraldera. XI. dinastiako Mentuhotep III.ak ere agindu bera eman zuen. Baina espediziorik ezagunena XVIII. dinastiako Hatsepsut erregina-faraioaren garaian egin zen, Inperio Berriaren hasieran, Deir el-Bahariko tenpluako erliebeetan xehe-xehe deskribatuta gorde dena.

Punt Hathor jainko-jainkosaren lurraldea eta Rak lurrean zeukan etxea zen. Goizero eguzki-jainkoa hantxe jaitzen zen, mundua argiz betetzeko. *Ta-netcher* esaten zioten egiptoarrek, "jainkoaren lurraldea", alegia, eta paregabeko aberastasunak zituen: intsen-tsu, mirra, ebanoa, urrea, malakita...

Hatsepsut Egiptoko tronuan luzeen egon zen emakumea izan zen, K. a. 1479tik 1457 arte. Eta Punteko espedizioa agintaldiaren une gorena izan zen. Lehorretik nahiz itsaso- z abiatu zen espedizioa, hainbat guri eta 24 metro luze ziren bost ontzi Punteko agintarientzako opariz bete ondoren. Besteak beste, Hatsepsut erregina eta Amon jainkoa elkarrekin irudikatzen zituen eta granito arrosazko bloke bakar batekin zi-



Egiptoar espedizioa Punt herrialdera iritsi zenekoa irudikatzen duen erliebea, Hatsepsut faraoiaren garaikoa, Deir el-Bahari tenpluan.

zelkatua zegoen estatua erraldoia eraman zieten lurralde joriko biztanleei. Bidaia oso arrakastatsua izan zen. Bizirik zeuden 30 zuhaitz eraman zituzten bueltan, gero Deir el-Bahariko tenpluaren atarian landatuko zituztenak; palmondoak eta sikomoroak besterik ez zituen herrialdean, bestelako zuhaitzak ondasun preziatuak ziren. Gainera, mirra, ebanoa, bolia, "urre berdea" (malakita), intsentsua, animalien larruak, txakurrak, babuinoak eta bestelako tximuak eraman zituzten gortera.

Punteko Ity erregina eta Parehu erregea xehe deskribatu zituzten espedizionarioek; hangoek egiptoarrek baino azal ilunagoa zutela esan zuten, adibidez. Baina lurralde miragarriaren kokapenik ez zuten zehaztu, eta gaurdaino ez da Punt arrasto arkeologikorik identifikatu. Adituen ustez, egungo Sudan, Somalia, Eritrea, Etiopia eta Djibuti inguruan egon zitekeen. Beraz, Ra jainkoaren etxe oparoa zena planetako eremu txiroenetakoa da egun. ■



HONGEN JIANG

Cannabisa, duela 2.500 urteko hil-oihala

Txinako ipar-mendebaldean, antzinako Jiayi hilerriko M231 hilobian, aurkikuntza berezia egin dute: duela 2.400-2.800 urteko gorpuaren gainean hamahiru cannabis landare ia oso zeuden, diagonalean jarrita, hil-oihal moduan. *Economic Botany* aldizkarian argitaratutako artikuluen arabera, eremu horretako klima lehorrak lagundu du kalamu landareak

hain ondo kontserbatzen, argazkian ageri denez. K.a. lehen milurtekoan Erdialdeko Eurasian kalamua errituetan eta sendagarri erabiltzen zutela baieztatu du aurkikuntzak. Lehenago, garai bereko Ukok printzesaren hilobian, *cannabis sativa* haziak aurkitu zituzten. Printzesak, ustez, landarea erabili zuen bularreko minbizia arintzeko. ■

ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA

Gure literaturak merezi duen tornua

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordeko (LIBeko) kideen lana da. *Erdi Arotik Errenazimentura* liburua *Euskal Literaturaren Antologia* sailaren lehen alea da. Antologiak egon badaude, baina berria egitea hobetsi zuten egileek. Orain arteko lanek ez dute jasotzen euskal literaturak merezi duen *tornua*. Ondo bidean, beste lauzpabost alek osatuko dute antologia osoa. LIBeko Karlos Otegi, Sebastian Gartzia Trujillo eta Iratxe Retolazarekin mintzatu gara proiektua kolektibo honetaz.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: EUSKALTZAINDIA

Euskal literaturaren antologiak egon badaude, generoka antolatuak: poesiaz eta nobelaz. Antigoalekoak edo aro modernokoak. Erakargarriak al dira, ordea? Interesgarriak izan daitezke, baina gure solaskideek diotenez, “ez dute ikuspegi osoa eskaintzen, oso mugatuta daude”. Antologia berriaren lehen alea –Erdi Arotik XXI. mendera bitartekoa– dagoneko irakurgai dago: “Gure asmoa antologia osoagoa egitea izan da, autore eta testu gehiago ekarri ditugu: sarrerak, azpi-testuak eta oin oharrak gehitu ditugu. Ez daude euskara batuan ez jatorrizko moldean, bien artean baizik”, diosku Karlos Otegi. Antologian hamaiak lagunak parte hartu dute. Ezaugarri nagusia talde lana izan da: “Taldea oso egokia da, Iparraldeko eta Hegoaldeko literatur arloko jende zaildua eta ikasia biltzen duelako”, gehitu du Sebastian Gartzia Trujillok. Iratxe Retolazaren hitzetan “antologia hau ez da ikerketa lan bat, batez ere, goi-mailako dibulgazioa du xede. Literatura ikerketa dezente daude, baita kritika ere, baina irakas-kuntzaren esparrua ez dago ongi bete”. Idazle eta testu klasikoan esparrua

osatu gabe zegoen. *Klasikoak* liburutegi zaharretan eta artxiboetan badaude, baina ez egungo zentro modernotik, ez behar bezalako euskarrietan. Antologia berriaren arduradunek zubi lana egin dute. Ikerketa eta literatura zaleen arteko espazioa betetzera dator, irakaskuntzarako bitarteko egokitzen joz. Lehenagoko antologiaren bidean beste urrats bat eman dute, testuak gaurkotu eta egokitu dituzte.

Gartzia Trujillorentzat lan esperientzia itzela izan da: “Testu zaharretan sorpresa asko hartu dut. Nire arloa bada ere, uste nuen baino testu gehiago eta hobeak daude, pentsatzen nuen baino gauza interesgarriagoak. Testu bat aztertzean oztopoak daude, baina landu ahala, berau gozatzen ikasten duzu”. Lanak eman dien plazer handiena hori izan da: “Argibideak emanez testuak ulertzeko bidea erraztu dugu. Baina horiek ez dira filologikoak, testua ulertzeko oharrak baizik”, zehaztu du Otegi.

Historia istorioek osatuta

Euskaldunok ez dugu gure herriaren historia behar bezala ezagutzen. Testu

hauen bidez ezagutu dezakegu. Adibidez, gure ahaideen liskarrak literaturaren bidez heldu zaizkigu: “Liburua, berez, ez da literaturaren historia, baina historia ikasi daiteke testuon bidez. Historia liburua testuinguru politikoaz izaten dira sarritan, baina non daude euren garaiko testu biziak? Literaturak beti kontatzen du istorio bat, guk istorio onak ekarri ditugu. Biak behar dira. Historian gertatua istorioz osatua ere bai”.

Egungo euskaldunok antigoaleko testuak, hala kanta eta nola bertso zaharrak, jende inkultuenak zirela uste dugula, esan digute LIBeko kideok: “Askotan pentsatzen dugu gure testu zaharrak pobreak direla [Gartzia Trujillo mintzo da], pobreak dira agian asko ez direlako, edo laburrak direlako, baina edertasun aldetik zoragarriak dira, metafora ausartak eta politak daude. Testu horietako askoren egileasuna ez dugu ezagutzen, baina jende kultuak zirela berretsi dugu”.

Retolazak azpimarratu duenez, “gure burua gutxietsi egiten dugu askotan, eta ahozko literaturan erabiltzen ziren baliabideak izugarriak dira”.

Liburuaren egitura

Liburua egileen eta testuen arabera egituratuta dago. Autoreek nahiko nortasun, obra edo kalitate baldin badute, kapitulu bat eskaini zaie. Bernat Etxepare, Joan Perez Lazarraga eta Joanes Leizarragak atal bana dute. Horregatik, I. atala, Erdi Aroko *Kanta eta Bertso zaharrak* biltzen dituena, generoz, gaika edota multzoan antolatuta dago. Kanta eta bertso zaharren autore horietako asko anonimoak dira. Testuak apailatzean ez dituzte bakarrik autoreak aintzat hartu, testuetan agertzen diren protagonistek berealdiko lekua dute Erdi Aroko literaturan. Areago, testu zaharrak elizgizonenak diren us-tea aski zabalduta dago, baina garai hartako testu gehienak jende zibilenak dira. Ez da kasualitatea testu horiek Etxepareren aurretikoak izatea, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren aurretikoak: “Trentoko Kontzilioak aldatu zuen errotik euskal kultura ere. Eresiak debekatuak izan zirela jasotzen duen dokumentua dago. Trentoko Kontzilioaren aurretiko kulturaren adierazpideak dira, eta justu ondoren, kultura aldaketaren ondorioz, horiek guztiak murriztu ziren”, adierazi digu Retolazak.

Historialariek jasotako testuak landu dituzte arduradunek, dokumentuetako historia jaso dute, eta euren lana kronologikoki zehazki kokatzea izan da: “Ahoz jasota daude batzuk, askotan gertakizunaren bueltan suma dezakezu testua noizkoa den, baina tentu handiz ari behar izan gara” erran digute.

Trentoko Kontzilioaren muga

Etxepareren obran Trento aurreko mundu ikuskera dago. Apaiza izanagatik, adierazgarria da emazteen eta sexuen inguruan nola idatzi duen. XVI. mendeko poema horiek gero zentzuratuak izan ziren: “Trentoko Kontzilioak eragin txarra izan zuen Etxeparek proposatzen zuen ikuspegian. Bere obra publikatu zen, baina justu kultura aldaketa izan zen garaian”. Euskaraz publikatutako *Linguae Vasconum Primitiae* lehen liburuaren egileak kulturaren bestelako ikuspegia islatu zuen bere obran. Besteak beste, Etxepareren *Emazten fabore* eta *Amorosen disputa* poesia lanak jaso ditu antologia honek. Etxeparek *Bernard Leheteri* delako gutunek zabaltzen dute II. atala.


III. atala Joan Perez Lazarragari eskainia dago. Lazarraga noblea eta euskaltzalea zen: “XV. eta XVI. mendeetan euskara ere, nobleen hizkuntza zen. Egun, garai hartako euskara pobreen eta baserritarren hizkuntzat hartua da, baina ez, mende horietan nobleen hizkuntza ere bada, testuak jende ikasiak idatzita daude. Testu zahar horiek gehienak mendebaldekoak dira, eta Nafarroakoak”, diote Gartzia Trijullo eta Otegi. Paradoxikoki testu gutxienak Gipuzkoakoak dira.

Bitxikeri gisa, I. atalean argitaraturiko Maria Estibaliz Sasiolaren *Amodiozkoak* eta *Perutxoren kanta* Lazarragaren testuen artean aurkituak izan ziren: “Patri Urkizuk Estibalitz de Sasiolaren testutzat jo ditu, Urkizuk berak ondutako atalean dioenez. Autoreek pisu handia ez dutenean, testu multzoen atalean egoitu zituzte. Halarik, Sasiolaren testuak kokapen historiko baten aurkikuntza dira, lehen emakume idazleen testuak. Egiari zor, hala denetz ez da guztiz jakina, orainsu arte, Bixenta Mogel baita lehen emakume idazlea bezala joa. Hala ere, guk testuok Sasiolak sortutakotzat jo ditugu”. Solaskideen berbetan, bada, go horregatik zer ikertua oraindik ere.

Ahaide Nagusiak

Historia jendeek protagonizatutako liskarren bidez heldu zaigu. Euskaldunona ez da beste herrialdeetakoekin alderaturik diferentea. Erdi Aroko testuek liskarrak kontatzen dituzte gehienbat, amodiozko testuak tarteko, bai hemen, bai Espainian eta Europan orobat: “Horiek lehen kapituluak ageri dira, gero erregen garaiko egileak datoz. Etxeparekin hasita, Leizarraga gero. Honek Albreteko Joanarekin lotura zuen”. Erregeek lagundu zuten eskuizkribuak inprimatzen. Alabaina, Lazarragaren obra eskuizkribua da, argitalpenik gabe, ez zen inprimatua izan”.

V. atala salbuespena da, Leizarragari dagokio, testuen itzulpenak dira: *Joana Albretekoari* eta *Euskaldunei* testuez gain, *Ebanjelioen zatiak* eta *Apokalipsia* daude: “Gaia oso eztabaidatua izan zen. ‘Euskal Literaturaren Antologian itzulpenak sartu behar al ditugu?’. Baiezko batez trenkatu genuen ezbaia. Itzulpen horiek ekarritakoa izugarria baita, Anjel Lertxundik aitortu du lan funtsezkoa dela. Euskaraz sortuak edo lehen aldiz argitaratutako liburuekin batera



» S. GARTZIA TRUJILLO:

“Testu zaharretan sorpresa asko hartu dut. Uste baino testu gehiago eta hobeak daude, pentsatzen nuen baino gauza interesgarriagoak”

» IRATXE RETOLAZA:

“Trentoko Kontzilioak eragin txarra izan zuen Etxeparek proposatzen zuen ikuspegian. Bere obra publikatu zen, baina justu kultura aldaketa izan zen garaian”

» KARLOS OTEGI:

“Euskal Literaturaren Antologian itzulpenak sartu behar al ditugu? Baiezko batez trenkatu genuen ezbaia”



Andres Urrutia euskaltzainburua eta Iparraldeko EEPko lehendakari Mathieu Bergé, liburuaren bi arduradunetako Karlos Otegi eta Jon Casenave artean.

salbuespen izan da Leizarragarena, hizkuntza eredu bat eskaintzen duelako”.

V. eta VI. ataletan *Gutunak* eta *Paremiak* egokitu dituzte. *Gutunak* Bertrand Etxauz eta Urtubiako anderearenak dira. Etxauzen eskuizkribuak Parisko Biblioteca Nazionalean daude eta Urtubiarenak Simancasen (Salamanca). *Paremiak* Esteban Garibairen *Refranes y Sentencias* (1596) dira. Paremiak, adagio, axioma eta erretratuak dira gaztelaniaz: “Gutunak eta paremiak literatura al dira?”. Horretan ere eztabaida izan zen: “Bai eta ez. Hala ere, atal bi horiek sartzea erabaki genuen”. Solaskideen hitzetan, gutunak euskaraz sortutakoak dira, bi hizkuntzatan agertu diren arren. “Batzuk garbi dira euskarazkoak, beste batzuk zalantzazkoak, lehenik gaztelaniaz eta gero euskaratuak. Asko euren itzulpenak dira, itzulpenak baino moldaketak. Ahozko erretratuak dira, eta hala edo nola jasoak, batean euskaraz bestetan gaztelaniaz. Beraz, ezin jakin zein hizkuntzan diren sortuak”.

Erretratuak literatura generotzat hartuak ziren garai hartan, gutunak ez bezala. Hauek orduan halakotzat hartzen ez ziren arren, oso adierazgarriak bilakatu dira egun, pertsona historiko horiek euskara hautatu eta erretorika landu zutelako: “R. M. de Azkue dioenez, [Gartzia Trujilloren hitzetan] XVI. mendean gutunak euskaraz idatzi zituzten, horietako batzuk komertzialak ziren,

eta oso ongi idatziak. Badira ere espioitza eta gerra gutunak”.

“Jendeak dio [Retolaza eta Otegi ari dira] gure literatura ahula dela, baina betiere espainolarekin, ingelesarekin, alemanarekin edo frantsesarekin alderatzen delako. Ezin da ordea, konparatu. Ez hitzun tamainan eta hedaduran, ezta portugesez eta katalanarekin ere. Orduko euskal literatura Albaniako edo Estoniako literaturarekin alderatu behar da. Testuok garaiko onenak dira, historikoki oso adierazgarriak direlako. Gainera, kontua ez da soilik guk gaurtik begiratu zer hartzen dugun testu literariotzat, liburuaren historiaren ibilbidean eginda dago”. Gartzia Trujilloren iritziz “arazoa ez da hizkuntzarena ez hitzunena, guk baditugu jende onak literaturan, baina ez dugu unibertsitatez izan, ez instituziorik. Ez ditugu baldintza egokiak izan literatura oparagoa jasotzeko”.

Kulturak baliabide ekonomikoak behar ditu egun ere. Antologia hau lutzerako proiektua da, eta lehenengo zenbakiak garrantzia berezia izan du. Izan ere, solaskideen aburuz, gure kulturaz hitz egiten dugunean, duela 20-40 urteko lanak *klasikotzat* jotzeko joera dago: “Gaurkoak kontuan hartu behar dugu, baina antigoaleko autoreek zein ildo eta genero literario jorratu zituzten jakitea komenigarria da. Besterik ez bada, euren ezaugarriak gaurko literaturan duten eragina ezagutzeko. Iragan

mendeko 80ko hamarkadako literatura ezagutzeko aurrekoen literatura ezagutu behar dugu, egile horiek ordukoen erroetara jo dutelako”.

Transmisioa etena

Transmisioa eten egin da. Egun, gaurkoari garrantzia handia ematen zaio, eta aurrekoari ez. Otegi, Gartzia Trujillo eta Retolazak, liburuaren talde lana dela azpimarratu dute: “Guztion artean egin dugu hautaketa. Liburuan nik [Gartzia Trujillok] lehenengo zatian lan egin dut Iratxerekin, baina ez dugu biok bakarrik egin, irizpideak eta ezaugarri nagusiak denok artean erabaki ditugu, iritzia denona izan da. Liburu oso eztabaidatsua izan da”. Otegi dioenez “eztabaida nagusia testuak hautatzerakoan izan da, egokitzapena egiterakoan. Adibidez, *H* bai edo ez. Hemen jarri, eta hor ez. Gehiengoak erabaki du hala ere”.

Eztabaidak hainbesterainokoak izan dira, ezen eta atalen “egilea” eta “arduraduna” jarri artean eztabaidatu zutela: “Ez gara testu horien egileak, sarrera eta ohar egileak gara, orduan egokiena arduradunak garelako esatea da”. ■

LUAarkitektoak


hirigintza
aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com



*Charles Dickens
idazle britainiarra
eta egungo hainbat
telesail ospetsuren
irudiak.*

Charles Dickens bizirik balego, telesail gidoilari izango litzateke



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Zergatik esaten da azken urteotan, telesailak asko hurbiltzen ari direla, bai forma bai eduki aldetik, aitzina literaturak betetzen zuen eremura?

Pantaila txikiak, literaturaren iturburu beretik edaten duela argi dago, baina ez eleberrri konkretu batean oinarritzen direlako soilik. Istorioa bera eta hauek hornitzen dituzten pertsonaiak eraikitzen diren antzekotasunak, oso nabarmenak direlako baizik. Fikzio guzti hauen gidioak literatura izaten dira eta aipaturiko pertsonaiek sakontasun berbera izaten dute.

Pentsa hainbat asteetan zehar irakurtzen jardun dugun liburu horren protagonista, gudan izan dezakeen eragina ala zortzi denboralditan zehar ezagutu dugun horrekin "bidaiatzeak" zer-nolako enpatia maila sortzen duen gudan. Eta ez hori bakarrik, "kontsumitzen" ditugun moduan ere antzekotasun handiak loratzen dira. Dosi txikietan ikusi/irakurri ditzakegulako; autobusean, tren geltokian, ohean... liburuaren pasarte bat ala telesailaren atal konkretu bat ikus dezakegu, ordu batzuk geroago utzi dugun puntutik inongo arazorik gabe jarraituz.

Telesailen baliabideak

Baina telesailak erabili ohi dituzten errekurso literario horiek zeintzuk diren ezagutzeko, onena da adibide konkretuak aipatzea. Fikziozko literaturan betidanik dauden elementu narratiboak baliatzen baititu telesailak. Istorioak kontatzeko makina perfektua bilakatu direla esan daiteke. Literatura zatikatuaren ezaugarri asko ditu, adibidez, ezaugarri narratiboak, eta baita ikuslearen arreta mantentzeko hainbat errekurso ere erabiltzen ditu. Arthur Conan Doyle ala Charles Dickensek erabiltzen zituzten oso antzekoak. Metaforak, elipsiak ala gaur egun hain modan dagoen *Cliffhanger*aren erabilera (atal

» Fikziozko literaturan betidanik dauden elementu narratiboak baliatzen ditu telesailak. Istorioak kontatzeko makina perfektua bilakatu direla esan daiteke

konkretu baten azken eszenan ikusi edo sentitu daiteke normalean, baita film edo liburu baten azken uneetan ere. Gudan sortzen duen sentimendua, zirrara, egonezina, suspensea eta, batez ere, hurrengo atala ikusteko irrikan egotea da).

Errekurtsoak aipatzen hasita, autore jakin batzuen eragina erakustea ere interesgarria iruditzen zait. Lotura hau argiago ikusteko, bi bereizketa egingo nituzke. Alde batetik, generoak. Zientzia fikziozko edozein telesail ulertzeko adibidez ala distopia tartean duen edozein kontakizun, Ray Bradburyren eragina saihestezina baita. George Orwell, azken aldian hain modan dagoen *Black Mirror* ulertzeko adibidez, edo nola ez Shakespeare. Drama klasikoetan ageri diren obsesio horiek guztiak: familia, ohorea, boterea, odola, traizioa, tentazioa, errua... *The Sopranos*, *Breaking Bad*, *Sons Of Anarchy*, *Gomorra*... bezalako telesailetan txertatu baitzituzten. Bereiziko nukeen beste alderdia, kokalekua da. Telesaila non kokatua den, egile konkretu baten eragina antzeman daiteke. AEBetan kokatzen den istorio batean, Stephen King-en kutsua antze-

man dezakegu askotan –aurten sekulako zalaparta sortu duen *Stranger Things* adibidez–. Baita Edgar Allan Poe edo Mark Twainena... Edo herrialde nordikoetatik datozkigun *Forbrydelsen*, *Bron/Broen* edo *nordic noir* generoaz gozatze-ko aukera, Henning Mankell, Stieg Larsson eta Jo Nesbo bezalako idazleei zor diegula esan daiteke. Ingalaterran, berriz, aipaturiko Doyle eta Dickens, Jane Austen, Agatha Christie eta abar.

Game of thrones ospetsua

Dena den, argi izan behar dugu, liburu eta telesaila istorio berbera bizitzeko bi bide direla. Alegia, bakoitzak aukartzen duela zein bide jarraitu, eta "liburu hobia" da esaldiak ez duela zertan beti egia izan behar. Eleberrriak, ekoizpen guzti hauen oinarri eta inspirazio iturri izatea ongi dago, baina batzuetan zama hori askatzea komeni dela uste dut. Azken asteetan Euskal Herriko sare sozialak hankaz gora jarri dituen *Game of thrones*en kasuarekin argitzen saiatuko naiz argudio hau. Telesaila, George R. Martinen liburuetan oinarritua dago baina azken denboraldia izan da lehena, eleberriko kontakizun nagusitik aldentu dena (aurreratu egin baitu). Aztertu beharreko alderdia dela diot, telesaila nabarmen hobetu delako. Pertsonaiak, erritmoa eta trama orokorra askoz hobeto uztartzen dira, eta kontzeptu zinematografikoa askoz aberatsagoa iruditzen zait. Errekurtso literarioak erabiltzea ongi dago, baita liburu gida hartzea, baina betiere kontuan izanik, istorioak kontatzeko beste bide bat dela. Orri zuri horietako hizki beltzek, telesailari zigorrak ematen saiatzen diren arren, irudia eta batez ere, zinema bera baita gailendu behar dena. ■



ANTOLATZAILA

BABESLE NAGUSIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gorpuak ur azalera nola



Iratxe Retolaza



33 ezkil

MIREN GORROTXATEGI

Agustin Zubikarai Saria, 2015
Elkar, 2016

33 ezkil estreinako nobelan, giro gris eta iluna eraiki du Miren Gorrotxategik. Ferminek giza-ki-burez bat topatzen du, baserriko lurretan ur-depositu bat jartzeko lanetan ari dela. Burezurraren auziak aspaldian izozturiko harreman zenbait biziberritzea ekarriko du: Fermin eta Karmen senar-emazteek Nestor semeari hots egingo diote; eta Nestor, bide batez, Berta neska-lagun ohiarekin jarriko da harremanetan, indusketa-lanetan jardun ohi duelako. Garizmendi baserrira garamatza gertaerak, baina, baita inguruetan kokaturiko beste espazio batzuetara ere: elizara, hilerrira eta Garizmend-Berrira (hau da, Ferminen anaia bikiaren etxera). Geografia horretan ezkila-hotsek eta hezur-dantzek zeharkaturiko giroa sortu du, eta lur-eremu ezegonkorra irudikatu: familia-sekretuak eta iruzurrak ditu lur azpiko ur, eta mesfidantza-giroa da nagusi. Burezurraren misterioa argitu ahala, isildutako eta lurperatutako iraganak gainez egingo du Garizmendi aldean, gorpuek ur azalera nola.

Neorruralismo beltzaren bidetik jotzen du nobelak, eta 80ko hamarkadan neorruralismora hurbildu ziren nobelak dakartza gogora: besteak beste, *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) nobelako apustu-giroa eta *Kcappo* (1985) nobelako kutsu beltza. 33 ezkil nobelan, baserri-giroaren gogortasuna islatzeko, apustuaren kultura agertzeaz gain, beste ohitura batzuk ere irudikatu dira: oinordekotza eta maiorazkoa, norgehiagoka, inbidiak eta gorrotoak, baserriko bizimoduaren eta herriko bizimoduaren arteko talka, sinesmenak eta sorginkeriak, eta abar.

Nobela honetan irakurleak ez du bidea ikertzaileen eskutik egiten, nobela beltzean

ohikoa denez. Izan ere, bikote pare dabil auzia argitu nahian: maitale ohiak (Nestor eta Berta) eta ertzainak (Kortazar eta Ezpeleta); ez dago ikerketa-lerro bakar bat, beraz, eta narratzaileak gertaerak pertsonaia guztien ikuspegitik kontatzen dizkigu. Horretarako, bi narrazio-lerro eraiki dira: batean, auzia argitzeko prozesua da kontagai; bestean, aldiz, pertsonaien iraganera egiten du jauzi narrazioak. Intrigazko istorioek beti erronka handia dira: informazioaren dosifikatzean asmatu behar da, eta korapiloak modu sinesgarri batean askatu behar dira. Bi narrazio-lerro tartekatzeak, gainera, erronka areagotzen du. Bukaera aldera zenbait korapilo akaso azkarregi askatu dira, baina, oro har, ongi erantzun dio Miren Gorrotxategik erronkari, eta ederki asmatu du gertaeren puzzlea osatzen, jakin-minari eusten. Trebetasuna erakutsi du eszenak eraikitzen eta pertsonaien nortasuna apurka-apurka aletzen, baita misterio-giro hori eraikitzen ere. ■



Miren Gorrotxategiren lehen nobela da "33 ezkil". (Azpeitia, 1981).

» **TELEGRAMA**

Azaroaren 17tik 20ra bitartean, **Zinegin 2016 ekitaldiaren** kaletara euskal film berri andana proiektatuko da Lapurdiko Hazparne herrian. Ekitaldiak Haritz Barne zinema gelan eta Eihartzea Kultur Etxean izanen dira *STOP* Azaroaren 22an, asteazkenez, 19:00etan, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean **Hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren** barnean, katalana izanen dute hizpide *Hitz adina mintzo* lemapean *STOP David Foster Wallace idazle* estatubatuarren *Sekula gehiago egingo ez dudan gauza ustez dibertigarri bat* lema hartuta mintzatuko dira Iruñeko Katakarak aretoan azaroaren 25ean, ostiralez, 19:30ean *STOP*

» **DISKOA**

Bidaiak



Joxi Ubeda



Dual (1/2): Gordeka

TRISTTAN MOURGUY ETA HOREBA

I. O. 2016

I. O. (Iparrorratza) zigiluak argitaratu duen disko berri hau lan bikoitz baten lehen zatia da. “Egiazko jostura lan bat”, egileen hitzetan.

Doinuetan, kanpora egindako bidaiak suma daitezke, 70eko hamarkadako zenbait musika joeraren ukituak: euskalduna (Itoiz), anglosaxoa (King Crimson) edota brasildarra (Caetano Veloso). Folk-pop-rock-progresibo kutsuko kantutak dira. Giroak oro har leunak dira, baina pasarte batzuk indartsuak.

Hitzetan, berriz, barrura egindako bidaiak ageri dira, bidaiak intimoak, Tristtan Mourguyren sentimenduak, kezak, gogoetak: “Ez dut izar bat izan nahi ilu-

nabarra goaitatu sentitzeko alai, goizetik mihia bustitzen dut gezurraz pixkanaka pozointzen nere hezurak (*Gordeka*), “Oraina iraganaren hatza, zure hesia dadila altxa lehen aldikotz hartzeko hatsa, lizuna bihurtzeko aratza” (*Erakartzeko hitzak*), “Amets ederrenak haizu, nahiz ta harrapa-

gailu, presta zure paraisu, izan nahi dut kaiku-kaiku” (*Berritz azken aldi batez*).

Tristtan Mourguyren ahotsa eta gitarra akustikoa dira ardatz nagusiak. Nortasun handiko ahotsa dauka, beroa eta apala. Grabazio saioetan berarekin aritu diren musikariek lan handia egin dute kantuak janzten eta moldaketak egiten, Aymeric Gnimassouren (gitarra elektrikoa, *samplerrak* eta nahasketak) gidaritzapean: Flo Capelier (pianoa eta ahotsa), Arthur Capelier-Mourguy (biolina, alboka eta harmonika), Xabi Etxeberri (biolina), Cedric Lepine (bateria eta atabalak), Greg Juvin (baxua), Fabien Lapouge (klarinetea) eta Michael Barras (gitarra elektrika eta tronpeta). Eskarmentu handiko musikariak dira, zenbait taldetan aritutakoak: Euski, Begiz Begi, Zezenaren Taldea, Torii, Tikken Jah Fakoly, Bernard Lavilliers, Zapo Zain, Kadjo, Le Bestiare, Polo Fox, Mahamudra...

Tristtan Mourguy Donibane Lohizuneko da. 2014an *Trobador* bere lehen diskoa kaleratu zuen, eta disko hori aurkezteko 80 bat jendaurreko emanaldi egin zituen. Egunotan, *Dual (1/2): Gordeka* lan berria aurkezten ari da berarekin aritzen diren musikariek. Besteak beste, abenduaren 2an Durangon, abenduaren 11n Ziburun, eta urtarrilaren 3an Iruñean ariko dira. ■

Tristtan Mourguy jendaurreko emanaldi batean, bere taldearekin.



Sendo

XILABA

PUNTUAKETA

1.600 lagunetik gora bildu ziren Baionako Laugan aretoan azaroaren 12an. Hona finalean aritu ziren bertsolariak, eta bakoitzak jasotako puntuazioa (kontuan izan lehen biek buruz burukoak ere jokatu zutela, beraz, besteek baino bertso gehiago kantatuz):

- Sustrai Colina (1.008 puntu)
- Amets Arzallus (998)
- Maddalen Arzallus (581)
- Odei Barroso (576,5)
- Miren Artetxe (571)
- Xumai Murua (537,5)



Xan Alkhat

Sustrai Colina da aurtengo Xilaba bertsulari xapelketako txapeldun eta sendo aritu da urruñarra. Finala burutik buru bere alde jarri zuen: hasieran zortziko handian Amets Arzallusekin aritu ondotik, eta buruz burukoan ere, bere betiko bertso lagunarekin lehiatu arte. Ideietan azkar, errimetan on, bertsokeran sendo.

Amets Arzallus hendaiarra ez zen, beharbada, bere egun onenean baina berak ere hiru aldiz jantzitako txapela desio zukeen. Bosgarren Xilabako txapel hau aldiz, aitzinekoa bezala, Sustrairen kasko gainera joan da. Lehen agurra “Nere buruaz beste egitera / ta gure buruaz besta” puntuarekin bukatu zuen txapeldun izanzen zenak eta preseski “amildegiaren aurrean eta jauzi egiteko erabakia hartuta” jarri zuen buruz buruko bakarkako azken lanak. Bere buruaz beste egiten jakin zuen Colinak gai guzietan, bakoitzean



BERTSULARIEN LAGUNAK

pertsonai desberdinen ahotik kantatuz.

Ezin meriturik kendu beste bost bertsolariei ere. Finala hain gozoa, hain beroa izan bada, bertsolari guztiei esker izan da. Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Odei Barroso, Miren Artetxe eta Xumai Murua gelditu dira txapeldunaren atzetik, hurrenez hurren, baina denek poztekoa dute saio izugarri ona eskaini baitzuten Baionako Laugan bildu zen entzulegoari.

Txapeldun sendoa, Xilaba sendoa, uste dut egindakoarekin, aurtengo txapelketak zerekin poztu baduela. Helburu garrantzitsuenak beteak dira: hamabortz bertsolari trebe agertu dira gure hiru lurraldeetako zazpi herrietan, ehunka bertsozale hurbildu dira saioetara eta euskaraz egin izan da hori.

Ez dugu menturaz aski azpimarratzen baina txapelketa, berez, lehia gisa kritikatzen ahal bada ere, bederen, euskara



hutsean egiten den ekitaldia da. Euskara hutsean eta burutik buru. Zazpi larunbatez, Iparraldeko zazpi herrietan bi edo hiru oreneko bertso saioak eskaini izan dira. Ez da beharbada anitz, baina deus baino hobeki da beti.

Geroari begira ere poztekoa da. Bertsorearen geroaz ari naiz noski, gure heinean geldituz beti. Uste dut Xilaba sendotzen ari dela. Sendotzen ari da hainbat herritan eta sendotzen ari da bertsoszalearen buruan. Bertso eskoletan ibiltzen diren haurrak ere ikusi izan ditugu kanporaketetan, finalaurrekoetan eta finalean ere franko. Horientzat eredu bilakatzen ari dira bertsolari guziak eta hobe. Iparraldeko bertsolari gazteagoak ere ikusi izan ditugu laguntzaile lanetan eta hobe. Denen beharra badu oraindik Xilabak eta, naski, luzerako.

Ondokoak ederrak eta ederragoak izanen direla sinesten dut. Sinesten dut, sendo. ■



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Quim Arrufat CUPEko zuzendaritza berriko kideak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.



5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Akatsik gabe. 2. Ubeldura. 3. Hil.
4. Lerde, adur. 5. Ozeaniako irla eta
estatu.




Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak
direla kontuan izanik, hori bai, hurrenkera
ez da zertan bera izan.



Ebazpenak



“Lehengo Convergentziaren inguruan badirra konfiantza
txikia ematen didaten sektoreak. Bada jendea nekaezin
ari dena prozesuaren aurka eta bere alde”;

5x5:

1. Zuzen. 2. Ubel. 3. Zendu. 4. Elde. 5. Nauru.

Hizki berak:

1. Abiadura. 2. Ibiarazi. 3. Abiaburu. 4. Alabaina.
5. Eskribau. 6. Zaladabai.

Katrín Oddsdóttir. Islandiako konstituzio berriaren egileetakoa



BATISTE EZEIZA

2008ko krisialdiaren ondoren, askotariko erreakzioak egon ziren munduko bazter askotan. Gehienetan herri mobilizazioek izan zuten garrantzia, sakoneko aldaketak eskatzen zituzten mugimenduak. Islandian prozesu eratzaile eta lege-gile batek hartu zuen erreleboa, eta herritarren neurrira egindako instituzioak aldarrikatu zituen. Prozesu horretan murgilduta dago Katrín Oddsdóttir.

“Islandiako konstituzioaren testua ez da iraultzailea, egiteko prozesua ordea bai”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

Ohikoaz nazkatuta

“Aurki hauteskundeak izango dira Islandian. Alderdi piratak bozken %15etik gora dauka, eta horrek adierazten du jendea nazkatuta dagoela ohiko alderdiekin eta sistemarekin orokorrean. Horregatik uste dugu une egokia dela konstituzio berriaren aldeko mugimendua berriz ere suspertzeko”.

2008ko krisialdiak gogor jo zuen Islandian. Bazegoen hura iragar zezakeen aurreakirik?

Kolapsoaren osagai guztiak aurretik zeuden, jakina. Islandia herrialde txikia da eta halere, bere banku sistema Suitzako imitatzen saiatu zen. Jokalari handien antzera jokatzen saiatu zen finantza sisteman; gauzak horrela, dena kolapsatu zen 2008koa iritsi zenean. Aurrez oso jende gutxi ausartzen zen “hau gaizki doa” edo “honek eztanda egingo du” esaten. Danimarkatik espezialistak etorri ziren sistema aztertzerantz eta esan zuten “zerbait gaizki dabil hemen, sistema lehertuko duzue”, horren aurrean Hezkuntza ministro islandiarrrak erantzun zuen, oso modu harroan, “itzuli zuenera eta hobeto ikasi”.

Krisialdiaren ondoren, jendea konstituzio berri baten alde antolatu zen. Zergatik?

Bi arrazoi nagusi daude. Lehenengoa, islandiar demokrazia jaio zenetik urte asko eman dugula aldarrikapen hori egiten, gure kultura politikoa horren inguruan errotu da. Bigarrena: erakun-

de guztiak kolapsatu direnean atzera begiratu behar duzu eta galdetu behar diozu zure buruari “non dago gizartea”? Existitzen al da? Eta hura hautemateko modurik ez baduzu, beste gizarte bat egituratu behar duzu. Kontratu sozialaren antzekoa da, guztiaren oinarriak definitu behar dituzu berriz ere.

Idealistak zaretela esan dute batzuek, urrutiegi joan nahi duzuela.

Eta are urrutiago ere joan nahi dugu (barre). Konstituzio honek ez du Islandia herrialde perfektu bihurtuko, baina hasiera bat jarri nahi diogu gure buruen bertsio berritu bati. Konstituzio berriak ez du herrialdea salbatuko, badakigu. Era berean ez da iraultzailea, inondik inora, baina gure konstituzioa da eta jende normalarentzat testu ulergarria da. Krisi handia pairatu genuen eta bide berri hau berriz ere akatsak errepika ez daitezen bermea da. Bestalde, oraingo aldaketaren parametroak ez daude helburu maximoetan, orain bide berri baten hasieran gaude eta ahalik eta atxikimendu handiena behar dugu.



Azaroaren 10ean Ametzagaiña taldeak, lametzak eta ARGIAk antolatutako Euskarabildua jardunaldietan izan zen Oddsdóttir, Islandiako konstituzio berria idazteko erabili zen prozedura azalduz.

ALE GOIKOETXEA

Nolakoak izan zen konstituzioa eratzekeo prozesua?

1944an independizatu ginen Danimarkatik, eta Islandiak herrialde horretako konstituzioa kopia zuen kasik hitzez hitz. Guk dinamika hori irauli eta testu berria egin nahi genuen, behetik gorako zentzuan, herritarrengandik hasita. 25 pertsonok osatzen dugu Konstituzio Batzordea, eta batzorde horrek idatzi zuen testua. Ez gara politikariak, eta ez ditugu haiek ordezkatzen.

Nola egiten da konstituzio bat behetik gora?

Aipatu dizudan batzordea osatzeko prozesua luzea izan zen. Lehenik, mila pertsona hautatu ziren herrialde guztian; erdia emakumeak, erdia gizonak eta eremu geografiko guztietakoak. Egun batez elkartu ziren eta eskatu zitzairen irudikatzen zuten gizarte ereduaren baloreak azaltzea. Topaketa horren emaitzarekin 400 orrialdeko tosten bat idatzi genuen. Eta horren ondoren jendeak aukeratu zituen batzordeko 25 kideak, ni tartean, eta lau hilabetean konstituzio berria idatzi genuen. Pro-

zesu horren parte-hartzean internetek pisu handia izan zuen. Eztabaida guztiak *streaming* bidez zabaltzen ziren, eta jendeak sare sozialen bidez bere iritzi, proposamenak eta botoak bideratzen zituen. Gure ustez, jendeari itzuli behar zaio boterea.

Facebooken eragina aipatu duzu. Hainbestekoa da haren ahalmena?

Tira, Facebook oso tresna kapitalista da, baina Islandiarako, era berean, komunikatzeko oso tresna inportantea da. Populazioaren bi herenek erabiltzen dituzte sare sozialak Islandian. Gai askoren arabera taldeak egiteko aukera eman zigun, eta jendeak parte hartu zuen. Egia da sare horren jatorria sistemikoa dela, baina kasu honetan guretzat eztabaida elikatzeke ezinbestekoa izan zen.

Konstituzioaren prozesua zertan izan zen iraultzailea?

Esan bezala, testua ez da iraultzailea, prozesua ordea bai. Oso inportantea da hori bereiztea. Testua inperfektua da, baina saiatu ginen gizarteko alde guztiei lekua ematen. Batzordean feminista

asko gara. Trans komunitatea etorri zen guregana eta lanean ibili ginen testuan haien inguruko lege zein eskubideak idazteko. Hasieratik izan dugu kezka hori: nola egin arraza, genero eta sexuaren ikuspegitik orekatutako testua. Gero, kontsentsuaren metodologian jende guztiak bozkatzeko du eta beti ez dute irabazi aldaketa erradikalenek.

Kultura eta artearen papera nolakoak izan ziren prozesu horretan?

Konstituzio Batzordean artistak zeuden hasieratik; aktoreak, zine zuzendariak... Eta eskerrak, nire ustez haiek gabe ez baitago kalitatezko ezer egiterik. Konstituzioaren kontzeptuan pentsatzen jarrita, ez da oso kontzeptu kulturala, esan nahi baita batez ere gizartea antolatzekeo legezko delakoa. Zentzu horretan, kultura gizarte berri baten fundazioan oinarritzeko izan zedin saiatu ginen hasieratik. Gure kultura babestea da guretzat oinarritzeko printzipioetako bat. Ez dut uste idatzi dugun konstituzioan gure kultura babesteko araudi esplizitua dagoenik, oster, dokumentuaren filosofian hura integratu dugu. ■



Herri Txiki Infernu Handi erabat euskaraz izateko proiektu pilotua aurkeztu du ETBk

Sakoneko aldaketak iragarri ditu ETBk Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztutako saio arrakastatsu eta exitosoan. "Kontatzen diren txiste guztiak euskara hutsez izateko erronka ipini diogu geure buruari", azaldu du Miren Garbiñe Jatorrarena ETBko euskara arduradun berriak, oraindik baikortasunez beteta. Ezinezkoa dirudien xede hori lortzeko, aparteko aholkularia izango dute: Kike Amonarriz. "Argi geneukan euskal txistegintzaren punta-puntako espezialisten laguntza behar genuela; azkenean, baina, Kikerekin konformatzea beste erremediorik ez dugu izan". Bestalde, Zuhaitz Gurrutxagari izena aldatu eta aurrerantzean Arbola Gurrutxaga izateaz pentsatzen ari dira, "behin irakurri genuen Jakob Errekondoren artikulu bat dela eta".



Herri txiki, Infernu Handi saioko gidoilaria etxean inspirazio bila.

Noizean behin ematen dituzten kamera ezkutuko programa horietako barrak ere euskarazkoak izan daitezen proiektu bat aztertzen ari dira, "baina auskalo aurrekontua izango dugun hainbeste ordu bikoizteko".

Zozoak beleari



AEB eta Mexiko arteko harresia indartu nahi duela adierazi du Donald Trumpek. Gure ikerketa saileko bekadun Iker Largabistak jakin duenez, horretarako aholkua eskatuko dio Europar Batasunari "benetako amerikarren ongizateaz aprobetxatzera" doazen etorkinak nola ondo izorratu ikasteko.

Bestetik, "estatubatuarrak trünpatu egin dira" esaldia 5.764.981 aldiz zabaldu da Euskal Herriko sare sozialetan. Adituen esanetan, bigarrenetik aurrera utzi zion barragarria izateari.

SAREAN ARRANTZATUA

Ni nintzen aizkolari



Iparraldeko buruzagiak



Ez naiz arrazista, baina...



4. argitaraldia

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua



Eskatu zure liburua

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

23 €

19,50 €

harpideentzat

AURKEZPEN-SOLASALDIAK HERRIZ HERRI

Antolatu zure herrian

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545


 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus

184 orrialde (21,5x25 cm)

Aliza Porru

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta




ANTON OLARIAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA



UNAI ITURRITAGA

BARATZEA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA JORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HIZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...




UNAI GAZTELUMENDI

AINARA AZPIAZU "AKPT"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO



EROSI 101 ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN

19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

edukia@bizibaratzea.eus



 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus